



BERTERRETX

Piarres Larzabal

Iturria: *Piarres Larzabalen idazlanak (II)*, Piarres Larzabal
(Piarres Xarrittonen edizioa). Elkar, 1991

Klasikoen Gordailuan:
<http://klasikoak.armiarma.com/idazlanak/L/LarzabalBerterretx.htm>

Klasikoen Gordailuak egindako lanak oro dominio publikokoak dira,
eta, Jabego Intelektualaren Legearen arabera jatorrizko idazlanak
bestelako eskubiderik ez baleuka, nahi bezala erreproduzi daitezke.

BERTERRETX

(Hiru gertaldiko antzerkia)

Jokalariak:

KONDEA

OTXOA

MUSIKARIA

TURKO

MARISANTS

BERTERRETX

ARROXA

MADDALEN

EZPELDOI

DOMINIKA

MARGARITA

DANTZARIAK

ATE-ZAINA



LEHEN GERTALDIA

Joka-lekua:

Jauregi zahar bateko sala eder bat... Murruetan, arma eta ihiziko orroitzapen... Ezker, ziminia bat... Erditan, ohorezko kadira, bi-hiru mailen gainean... Kadira haren sahatesan, barne ate bat... Eskuin, kanpoko atea, leihoarekin.

Oihala idekitzean, kondea, jarririk da ziminiaren ondoan... Iduri du gogoetatua... Musikaria kadira handiaren oinetan, musikan ari da, orduko zirrinka batekin... Berterretxen airea trixteki emaiten du.

Noizpait kondea xutitzen da, eta harat-ta-hunat kurri dabil.

KONDEA: (*Idorki mintzo*) Urrikari dut eni jazartzen dena. Harek konprenituko baitu, bere gostuz, Bortueder, Maule Jauregiko kondeak, bi gauza ez dituela sekula ikasi: sumetitzen eta bar-katzen...

Hanbat gaixto Berterretxentzat, hortaz ez bazen oraino ohartua... jauregi hunen zolako ilunbeak sobera gozatu gabe, begiak idekiko ahal zaizko... Anartean dagola hor...

Libertatea galtzeaz ez bada korreitzen, kenduko diot lepoa.

Berterretxek teilatu zabal duela-eta profeta bezala mintzo dela, eta, zer uste du? Ez duela enepean umiliatzerik?... Ene maila bereko dela?... Ikas beza eneganik, eta horrekin ikas beza-te ene meneko guziek. Bortuederrekin goregi doatzin arbolak ez dituela hazten, baina moztzen.

Bortuederrekin nehoi ez dik behatu nahi buruz-buru here ontasunetan, are gutiago petik gora... Hori jakintzak, Berterretx... Hori, jakin bezate orok. (*Ate-zaina deitzen du, joare batez*)

ATE-ZAINA: (*Agertuz*) Jaunak deitu nu... Zer dezaket jaunaren zerbitzuko?

KONDEA: Pierra, Turko, presondegi-zainari errozu, Berterretx ene aintzinerat ager dezan.

ATE-ZAINA: Zure zerbitzari, Konde jauna... Egina izanen da zuk nahi bezala.

KONDEA: (*Leibotik behatuz*) Hemen, begiek bixta-arau eta urrunago, eneak dira gizon eta lurak. Nehor ez bedi mugi ez sar, ez jali, ene

baimenik gabe! Berterretxek, Ezpeldoiko alaba, Margarita, behar omen du beretu eta Berterretxean espos lagun sartu... Hortan ez omen dut nik deus ikustekorik!... Ez zaio gogoratu ere, alaba beraren gainean, bertze norbaitek begiak pausatuak dituzkela. Erakutsiko diot nik zer gostatzen den, bertzen ontasunetan baimenarik gabe, urtzoen ihiztatzea.

ATE-ZAINA: (*Agertuz*) Konde jauna, Turko hemen da, Berterretx derakarla estekan.

KONDEA: Ontsa da... Musikari, jali zaite... Sar-araz zatzu. (*Bera jartzen da alki ederrean... Berterretxek bi eskuak giblean estekatuak ditu... Mintzatuko da, bizkarrez jendeeri, bisaia trebeska*)

TURKO: (*Berterretxi*) Belaunika hadi, nausiaren aintzinean.

BERTERRETX: Ez naiz belaunikatzen, Jainkoaren aintzinean baizik.

TURKO: Hee?... Hola mintzo haiz nausiari? (*Nahi du jo*)

KONDEA: Dagola xutik... Baina, muturra itzul-ak, Turko, horren potretak ez dezan enea zikin. (*Berterretxi*) Ikusten ahal duk orai garbiki, hire bizia ene eskuetan dela... Baina, Bortueder kondearen mehatxuez, ez omen huen, hik, axolarik... Bortuederrekin, hori eta hire iduriko balentriatsueri erakutsiko ziotek beren mailean egoiten, kopeta behera, herrestari gomeni den bezala.

BERTERRETX: Herrestatua naiz, baina ez naiz herresta, jauna... Kopeta gora daukazu, baina ez zira biziki gora.

KONDEA: Beira hadi mihi luzekerietarik... Orroit-hadi hire mihia motz dezaken ezpata eskuetan dudala.

BERTERRETX: Zure ezpatak baduke ahal, baina, ene baitan, zu baino ahal gehiago daukat.

KONDEA: Zer ahal dik hik?... Zer? Haizen herresta?

BERTERRETX: Denborak zure ezpata erdoilduko du eta zure indarrak hautsiko ditu... Nehor ez da izanen heien zaintzeko eta lauzkatzeko.

KONDEA: Zer daukak hire burua?... Profetatzat?

BERTERRETX: Ba, urgulu baduzu, harri pikatuz egin zure jauregi azkarrez. Baina gertatuko da eguna, harri horiek guziak barreiatuko baitira... Zure indarra, harri hilez delakotz, denborak erraustuko eta mutzituko baitu.

KONDEA: Eta hirea, uste duka iraunkorrango izanen dela?



BERTERRETX: Ba... Ene indarra arbola biziz baita, arbola hau moztzen baduzu ere, hunen trunko zaharraren inguruan, mila aldas-ka berri muskilduko dira... Eta zu ahantzia edo mespresatua bilakatuko zirelarik, mila boza altxatuko dira, erranen baitute: «Berterretzek arrazoina zian».

KONDEA: Badakik arras ontsa hire mixeriarene brodatzen. Egiatzko ahalik ez duenak bere burua maiz alegiazko ahalet hazten dik... Jakin-zak, hire pretentziona guziengatik, ene ezpataren kaskako ttipi bat askiko dela, hire prediku eta amets guzien ehortzeko eta ahanzteko.

BERTERRETX: Hala diozu. Bainan, ene burua kapetatzeke on bada zure ezpata, sekulan ez ditu kapetatuko arrazoina eta zuzenbidea... Ni ezpataz zilatu eta laburturik ere, ene arrazoina eta zuzena joanen dira beren bidean aintzinerat. Xut eta behin ere baino fermuago, ene odolaz haziak eta azkartuak izanen baitira.

KONDEA: Mintzo haiz zuzenlegearen jabe hi, eta hi bakarrik, bahintz bezala. Eta ni, bide makurretik ibilki banindukek bezala. Nor gabiltzak bide zuzenaz... Hi edo ni? Bahakien arras ontsa hemengo legea nola den. Ene meneko diren etxetako alabek, ene baimena behar dutela ezkontzeko, hori bahakien arras ontsa... Ene gogoaren berri galdatu gabe, hemengo legea mespresatuz, xedea hartu duk Margaritarekin esposatzeko. Nork dik beraz legea mespresatzen, hik edo nik?

BERTERRETX: Margaritaren gainean hedatua daukazun eskua, ez da zuzenezkoa bainan zuhaurezkoa eta bortxazkoa... Zer lege, zer dretxoz, Margaritak zure baimena behar du gogoko duen batekin sakramenduz apailatzeko?

KONDEA: Zer dituka?... Margaritaren gainean ditudan dretxoak ukatzen? Jakintzak ene dretxoak sakratuak direla... Mauleko Bortueder kondea, bere meneko lur eta suieten jabe dela... Jabe, Jainkoa mundu zabalaren jabe den bezenbat.

BERTERRETX: Ez, Konde jauna... Ez ditake gizon bat bertze gizon baten jabe izan... Holako dretxoaren pretentziona ez da sakratua bainan sakre bat. Margarita ez da gauza hil edo kabala bat, zu haren jabe izaiteko.

KONDEA: Noizetik hunarat buruzagiek ez ditek dretxorik beren menekoen gobernatzeko?

BERTERRETX: Buruzagieri da, menekoen ibilpideen laguntzea, eta, behar orduan, zuzentzea... Bainan ez, menekoen tapatzea eta irestea.

KONDEA: Ez zakiat nork holako katixima sorjesaz hire burua hanpatu dikan. Itzulino bat ez huke kalte, egiten bahu, San Bladiko abadearenganat, hire kasko barneko fuinen pixka bat purgatzeko.

BERTERRETX: San Bladiko abadeak eta nik badakigu elgarren berri, eta ez nau harek kontrestatuko.

KONDEA: Hola denaz geroz, purgamena bilduko duk jauregi hunen zolan berean... Hor aurkituren dituk bi erremedio: ilunbea eta gosea, hi bezalako kasko gogorren sendatzeko edo bentzutzeko hautak baitituk... Turkoren saldak eta gerizak badik jada hainitz konbertiturik... Ez dea hala, Turko?... Eta pentsatzen diat gizon hau ontsa tratatuko dukala. (*Turkok baitetz dio, irri larri batez*) Anartean, ibiliko nuk ni urtzo ihizian.

BERTERRETX: Ihizatzea nor-nahiren da... Atzemaiteak ditu lanak.

KONDEA: Turko, haragi hori eremak hire gazitegirat... Eta hik, Berterretx, ez zakala odol gaxtorik egin ene ihizatzeaz... Jakin zak Borteder kondeak, urtxo ihizian, aspaldi eta aspalditik bere apendizkoak eginak dituela.

BERTERRETX: (*Jalitz*) Buzokek ere ihizatzen dituzte urtxoak... Dena da ean, hola bildu urtxoa etxekotuko zautzun.

KONDEA: Kaiola ederrean, munduko urtxo guziak laketzen dituk. (*Bakarrik*) Ha zer predikaria hori... Holako bat aski laiteke eskualde batetako sujeten galtzeko!... Holakoeri hegalak motz lehen-bai-lehen, Bortueder, bertzenaz hire larderia laster urtua dukek. (*Ate-zaina deitzen du*)

ATE-ZAINA: (*Agertuz*) Zure zerbitzari, jauna!...

KONDEA: Pierra, musikariari errozu jin dadien. (*Bakarrik*) Nik ez dudala Margarita bilduko!... Lehena laiteke eni ihardoki lezakenik. Ez da oraino amen alabarik sortu, nik bil ez dezaketanik... Nahi dut zonbaiten ihizatzeke, behar dela abilezia eta pazientzia berezi bat. Bainan badakit ihizi-arau ihizatzen eta bakotxari bere apegooa apailatzen.

ATE-ZAINA: (*Agertuz*) Jauna, musikaria hemen da.

KONDEA: Ontsa da... Sar bedi (*sartzen da*). Behar dauzkidatzut otoi eman aire alegera batzu (*musika ari da, kondea harat eta hunarat*)



dabil, artetan bere solasak pikatzén dituela, edo leibotik behatuz, edo musika doblatuz) Batzuen ustekeria ditake Ebaren alabak arrazoinatuz direla enganatzen. Hola mintzo direnak, ez dira ofizioz argiturik mintzo, baina airetarik. Gutxi emazte bilduko duzu arrazoinatuz... Koxkorregi baita heien adimendua, lotkia on batek galdatzen duen hedadura eskaintzeko. Emazte bat zuretu nahi baduzu ase-atzu haren begi eta bihotzak... Haren begitan ager zaite eder. Eder zure gorputzaz, zure arropaz, zure solasez... Dirua ibil-azu aise, izan zaite karrosa jori baten jabe, eleak zabal-zkitzu gozo eta leun. Begitakoa ez bazaio aski, zure jorraz ingurika-azu, haren bihotza han hemenka kixkatuz, aurkitzeko nundik duken sargirik guriena. Jali-zkitzu etsimenduzko zinkurina sarkor batzu... Ez bazaizko aski, ixur berdin penazko nigar bero hunkigarrienak... Oraino ere gogor badago, ez uste partida galdua duzula. Egun ardiesten ez duzuna, bihar zuregana dezakezu. Ez izan presatuegi, baina erne egon mementoaren kausitzeari. *(Musika aire bat)* Heiekin gurutzamenduak ez dira behar sobera argi eta zut pikaia, baina lanbro goxoz kukutuak, arrosez usain-onduek, nigarrez olioztatuak, suspirez musikatuak. *(Musika aire bat, zaldi galupen aintzinean... Zerbait entzuten dute leibotik)* Ixil zaite, otoi, musikari! Ez dea hori zaldi galuparen arrabotsa?

MUSIKARIA: *(Leiborat hurbilduz)* Ba, kondea, zaldun batzu dira hurbiltzen ari, jauregiko tranparat. Sartzeko zubia emaiten diote *(aditzen dira arabera arrabotsak)* Zure zaindaria Otxoa da hor, bere gizonekin.

KONDEA: Ha... Ez da goizegi!... Beha dagonaren etsidura, bidekari heldu denaren akidura bezain lotsagarri baita... Zer behar ote daut ikasi?

ATE-ZAINA: *(Apu baten buruan agertuz)* Jaun Kondea, Otxoa da hemen!

KONDEA: Sar bedi. *(Musikariari)* Erretiratzen ahal zira. Agur Otxoa! Hor hiz azkenean! Aspaldi dik hire aiduru nagola! Zer berri ekartzen dauka...? Mintza-hadi.

OTXOA: Badut zernahi kondatzeko.

KONDEA: Jar-hadi eta konda-zkidak denak xeheki, burutik buru... Jakin-nahia satifatuko daukan bezenbat, zer urrats ibili behar duan argituko bainauk. *(Edatera ematen dio lehenengo kopa zabal batzuetan)*

OTXOA: Zuk erran bezala, nausia, hamar zaldizkoekin izan naiz lehenik Ezpeldoirat.

KONDEA: Margarita etxean zena?

OTXOA: Ba nausia! Margarita Ezpeldoian kausitu dut bere aitaizun eta amarekin... Zaldiko lagunak atean utzirik, nihaur sartu naiz Ezpeldoian, eta, hiruren aintzinean, mintzatu naiz, zuk erran bezala.

KONDEA: Nola mintzatu haiz? Edan zak!

OTXOA: Ederkienik, nik uste: «Maule jauregiko Bortueder konde aintzindariaren mutila naiz, diotet erran... Enekin, berri on bat eta zoriona dakarzkiz zuen etxe ohoragarriari»

KONDEA: Ez duk batere gaizki hastapena!

OTXOA: Eta huna nola segitu diotedan: «Ene nausiak hemen gainti ihizian zabilalarik, begia eman dio etxe huntako urtzo garbi gazteari... Ederragorik ez omen baita munduan... Eta, urtzo horri buruz heldu naiz... Nausiak manatu daut zaldizkoen inguru egin diezodan eta Ezpeldoiko ohantzetik, Maule jauregiko teilatuperat hel-araz dezadan»

KONDEA: *(Loriatua)* Urre mihiz ere, ez zukek hobeki mintza! Eta zer errepusta ukan duk?

OTXOA: Lot gaiten amatik... Amak doi-doi zonbait hitz bakar jali ditu... Hek ere funts gabekoak, sintsakeriatik... Ez du iduri baduela bere baitako handirik, ez eta ere haren errana biziki konda dela barne hartan.

KONDEA: Nik ere iduripen bera izan diat... Emazte goxo langile bat dela, baina uli bat... Eta aitaizuna?... Pentsatzen diat haren sustengua ukan dukala.

OTXOA: Ba, hura arras ados da eta lorietan Margarita zurekin ezkont dadien!

KONDEA: Ba, Ezpeldoi, denboraz jauregi huntan mutil egona duk... Pixka bat, eni esker, esposatu zuian Ezpeldoiko alarguntsarekin... Dirua eta gorapenak plazer zaizkok... Ez nuk estonutzen laster eta gogotik onartu badik ene proposamendua. Eta Margarita bildu duka?

OTXOA: Jauna, egia zor diot bere bidea... Ez naiz Margaritarekin jali, desira nukeen bezen gostuki.

KONDEA: *(Griñatuki)* Ez nian bertze beldurrik!



OTXOA: Bere itxuraren ederraz bezenbat, harritu nau here izpiritu xorrotx eta argiaz... Ene bizian guti andere gazte kausitu dut horrenbertzetaraino norbait iduritu zautanik.

KONDEA: Ba, aita zena zian hola, kasko handiko gizona. Eta fagore berezi batez, Margarita, munduko handieraren alabak altxatzen diren komentu batean altxatua izan duk... Aita hil-eta sartu zuian etxerat, bainan bazakik handizki bizitzearen berri.

OTXOA: Dena den, etxekoen baimenarekin, bere eskua Berterretxeri hitzeman omen dio... Eta ez omen du hitza janen.

KONDEA: (*Samur*) Berterretx!... Oraino ere Berterretx! Bainan zer kausitzen zioz herresta horri, hoinbertzetaraino hortaz xoratua izaiteko? Ez duk ba horren etxaldea dorredun...! Ez dik ba baitezpada ni baino gehiago, arkanjelu muturra!...

OTXOA: Hura omen du maite.

KONDEA: Hura maite!... Hura maite!... Horiek neskatxa gazte kaprizak ditik... Laster ahantziko ditik, segur nuk, Berterretx eta gainerateko purruskeriak, jauregi huntan kontesa handi jarriko delarik.

OTXOA: Horixe bera pentsatzen dut nik ere... Zu hobeki ezagutuz eta hemengo moldeak hartuz geroz, laster galduko duela Berterretxen andere gazte sartzeko tirria.

KONDEA: Bixtan duk, hola laitekela... Bainan bildu duka hunarat egoiterat onez onean jin dadien?

OTXOA: Jin dadien bildu dut... Ez beihalakoan... Zure gain da hemen egon-araztea... Ikusi dudalarik ez zuela biziki kilikatua iduri zure eskuaren eskaintzaz, aipatu diozkat, sarritik harat hemen emango ditugun pestak... Nola pesta horietarat gomitatzen zinuen, nola haren graziaz eta presentziaz pesta horiek nahi zinituen edertu eta alegeratu... Ez zela holako gomitarik errefusatzan... Gero ere zure eskurik ez badu nahi, etxerat libro izanen dela. Eta holako...

KONDEA: Biziki ontsa mintzatu hiz... Eta holako ele horien ondotik, nola plantatu zauk?

OTXOA: Halere eta beti hotz eta mutu baitzagon, azkenean aipatu diot Berterretx... Hunarat etorriz Berterretxenganik hurbiltzen zela, beharbada ikusten ahalko zuela eta menturaz librara-ziko ere. Eta hunarat bildu badut, uste dut azkenean, Berterretxentzat eta harengatik bakarrik heldu den.

KONDEA: Eta, noizko etorriko duk hunarat?

OTXOA: Laster engoitik. Ez baitzuen fitsitan gutaz inguratua hemen sartu nahi, azkenean onartu behar izan diot etxeko karrosan jin dadien, ama eta aitaizunarekin, merkaturat heldu balire bezala.

KONDEA: Berdin zautak nolanahizka jin dadin, heldu balin baduk... Dena duk hunarat-eta nola hemen laketaraziko dugun.

OTXOA: Nik, nausia, ihizia hurbildu baitzaitut, zuri izanen da orai haren eskuratzea.

KONDEA: Lan handitan emaiten nuk.

OTXOA: (*Irriz*) Ez dut beldurrik ez duzula erreusituko, behoken hezteko duzun artexiarekin. (*Atea jotzen dute*)

KONDEA: Aintzina!

ATE-ZAINA: (*Agertuz*) Berterretxeko anderea da hemen, jauna. Ikusi behar zaituela dio.

KONDEA: Ai ai ai! Haste partida! Errak, Otxoa, ez hadila sobera urrun niganik! Hire beharretan gerta nindukek.

OTXOA: Sahetsetan izanen niz, zure lehen deiaren gomendio.

KONDEA: (*Ate-zainari*) Sar-araz zazu Berterretxeko etxeko anderea. (*Otxoa jaltzen da. Kondeak, alegia okupatua, bizkarrez errezebitzen du. Marisants xutik dago, idor eta fier. Azkenean itzultzen zaio, eta botz-hotza, goratik*) Zer nahi zinuen?

MARISANTS: (*Samurki*) Zer nahi dudan? Kopeta baduzuia zuk hori eni galdatzeko? Zer uste duzu? Hobenik gabe, ene semea preso ezarri, eta, ixilik egonen nautzula?

KONDEA: Ama batek, holako pozoina mundurat emanik, ahalge eta ixilik egon behar luke!

MARISANTS: Nahiago dut pozoinaren ama izan, ustelduarena baino.

KONDEA: Herrestek ez bezate gal errespetua beren buruzagieri.

MARISANTS: Otsoeri ez da errespetu ekartzerik.

KONDEA: Beharko ekarri...! Beldurrarena bederen!

MARISANTS: Zure beldurra beira-azu xoroen izitzeko.

KONDEA: Ahazten duzu ene etxean zarela... Zure semea ene eskuetan dela!

MARISANTS: Ba... Hortako jina niz... Ez ahal duzu ama bati, hobenik gabeko haurraren ikustea errefusatuko!... Hala egin baitaut presondegiko buruzagiak.

KONDEA: Bere eginbidea bete du... Ez da nehor haizu, ene baimen berezia gabe, ilunbetarat eta hiltzerat kondenatu haundien ikus-terat.



MARISANTS: (*Asaldatua*) Zer?... Ene semea ilunbetarat eta hiltzerat kondenatua? (*Nigarrez lotzen da*)

KONDEA: (*Apur bat nigar egiterat utzirik, ezteki mintzo zaio*) Jar zaite, andere Berterretx eta funtsez mintza gaiten. Ba. Konprenitzen dut holako gertakari bat zoin latsa ditaken ama baten bihotzarentzat. Bainan, ez dakit konturatzzen zaren aski, zure semea zoin hobendun handi den eta zoin gaztigu izigarriaren irriskuan den!

MARISANTS: Ene semea holako gaztiguaren pean?... Bainan zer krima egin du?

KONDEA: (*Bizi bizia*) Haren egitatea, norbait hiltzea baino hitsago da... Ene menekoak ditu ene kontra muntatzen... Aspaldi du, begitan nuela eta zaintzen nuela... konpainiatzen den aldi guzitan, mihia ez du aski luze eni oldartzeko. Horra zure semearen krima!

MARISANTS: Hori balin bada ene semearen krima, zure meneko diren bertze hainitz, krima beraz hobendun dire.

KONDEA: Zer erran nahi duzu?

MARISANTS: Erran nahi dut, zure meneko gehienek hastiatzen zaituztela eta hameka badirela ene semea baino jorratzaleago, ene semea ez baita baitezpada maiz jalitzen eta konpainiatzen diren gizonetarik.

KONDEA: Eta jakiten ahal duta, jendeke zer dioten nitaz?

MARISANTS: Ez aise, zu egiaren entzuteko, ni haren erraiteko bezenbat beldur baitzira!

KONDEA: Mintza zaite deskantsuan... Otoizten zaitut eta manatzen dautzut.

MARISANTS: Galdatzen dautazunaz geroz: Ba, jauna, menekoak biziki beren gobernuaz arrangura dira... Aseak dira zure zergez eta zure gerlez... Aseak zure mainateretan alferrik hazi behar dituzten zure zerbitzari eta enplegatuez... Aseak bertzeen mixeraren bizkar muntatzen dituzun pestez... Hemen erdiak alfer bizi dira, bertze erdiaren gustuz. Nehork ez du zure errespeturik... Nehork ez zaituzte zure titrez deitzen, bainan «Gure POTZO»... Gorakeria, basakeria, odola, emaztekeria, erribotkeria direla zure jainkoak diote orok.

KONDEA: (*Otsotuz*) Askil... Enoxentak!... Ez banintz bertzalde argitua, zuhauren ahotik froga banuke, zer kalte hedatzen duten jendeen izpirituetan, zure seme eta haren idurikoen ele

zuriek. Bainan aski iraun du heien sator-lanak... Orai artio, heien egitateeri begiak hetsi ditut, beharriak gogortu bainan, hemendik harat, azoteaz ditut hezikio... Eta zure semea, hor izanen da bertzentzat lehen etsenplu eta izigailu.

MARISANTS: Zure oldartzeak ene semeari, nehor ez du enganatuko, bainan zure alderako hastioa emendatuko. Denek badakite berdin zertako ziren jazar ene semeari.

KONDEA: Ez dauzkitzuta eman, zertako preso ezarri dudan, ene arrazoiak.

MARISANTS: Zure estakuruak entzun ditut, bainan zure ibilpidearen arrazoina bertzerik da!

KONDEA: Zertako beraz, zure ustez, preso altxatu dut zure semea?

MARISANTS: Ez balitz izan Ezpeldoirik, eta Ezpeldoian, Margarita izena duen alabarik, oraiko orenean, ene semea, Berterretxean izanen zen... Aitor-azu zure oldartzearen zimendua hortan dela, eta hortan bakarrik.

KONDEA: Hori ere balin bada, ez duta ene dretxoa zaintzen?... Hemengo aspaldiko legea da, beren buruzagiaren baimenik gabe, menekoak ez ditazkela ezkont... Eta zure semeak, eni parte eman gabe ere, deliberatu du eta berria orotan hedatu, Margaritarekin esposatzen zela... Gehiago dena, espantuka ari izan da, nik legearen zuzena eta buruzagien errespetua...

MARISANTS: Beraz, ez duzu ene semea kondenatzen zuzenez eta legez, bainan bakarrik zure kaprizaz eta jeloskeriaz.

KONDEA: Zuek, herrestek, fitsik ez duzue konprenitzen goratikako kontesa hemengo bereko izan dadien, edo nunbaitik jinikako andere bat? Ez ote da denen onetan hobe, hemen bereko norbait izan dadien? Nik, denen ongia behatzen dut, Margarita hemen kontesatzat hartuz... Zure semeak aldiz, ba, bere kaprizia du satifatzen, bere burua zerbitzatzuz, denen ongiaren axolarik gabe.

MARISANTS: Noizpait ikasi zinuen, jauna, zure itsuskerien apaintzen eta edertzen!... Zer dira?... Kontesa geiak eskas inguru hautan?... Margarita, eta bakarrik hura, on hortaratzeko?... Eta Margaritak berak ez ote du fits erraitekorik?... Haren gogobihotzak ez ote dira errespetatu behar?

KONDEA: Margaritaren gogobihotzak norat gidatzen diren, harat doatzi... Eni buruz plega zitazken, eta ditazke, zure semeari buruz bezen fermuki.



MARISANTS: Hoin fermutasun gabeko emazte batetik duzuia kontesa bat egingo?... Margarita holako xoriburutzat hartzeko, ez duzuia hartaz estimu hoberik?

KONDEA: Dena den, eta, aski elerik baitut zurekin, ikusiko duzu... Eta, hemen berean ikusiko duzu. Zuen solasak ibiliko dituzue... Bainan abisu hau emaiten dautzut. Zure semeak ez badu umildu nahi eta Margarita bere gisa utzi nahi, zure azken adioak egiten ahal diozkatzu. (*Pierra deitzen du... hau agertzen da*) Pierra, andere hau dagola sahetseko sala batean, nik hunarat berriz deitu artio... Otxoa eta Turko jin ditela... Bederazka sar-araziko dituzu. (*Marisants jaltzen ari delarik*) Apaila zaitezte nahi duzuen bezala, bainan orroitz Bortue-derrek ez duela mehatxu debalderik egiten. (*Bakarrik*) Zer predikariak Berterretx horiek! Ez da segurki gezurra mota horrek duen omena: lamina andere batek urrezko aixturrez moztu ziotela mihi azpiko zaina.

ATE-ZAINA: Jauna, huna Otxoa!

OTXOA: Berriz ere agur, nausia.

KONDEA: Errak, Otxoa, hik bederen maite nuka?

OTXOA: Jes!... Hauze zer galdea!

KONDEA: Erradak egial... Ene menekoek gain-gainetik hastiatzen nau-teia?

OTXOA: Ha! Zer zira? Emazte horren kasulari bilakatu? Bixtan da, badi-tuzula, zuk ere, zure etsaiak!... Ez da itzalik gabeko arbolik, eta arbola gorago-ta itzala hedatuago du. Ez ahal zira hor-takotz griñaz urtuko.

KONDEA: Ez, ez diat ene kontra izan daiten axolarik! Biziko legea duk hori. Amor eman behar duenak, bihotzean zauri sendi-tzea... Hobe ene menekoak, ene larderiak ikaran balin badi-tuk. Herresteri ez zioteniat ene amodioa baitezpada galda-tzen, bainan ba ene beldurraren errespetua.

OTXOA: Jakinazu zu hastiro bazauzte, ni bietan hastiro nautela. Tipien makila, handieri baino, heien esku-makileri jazarkorrango baita... Ni bezala aski duzu egitea... Bizkarra zabal gain-beherako barazuzari eta aintzina garraia zure kargaren karga.

KONDEA: Horiek hola, badakika Berterretx nola ditaken Turkoren eskue-tan? Turkori erran zioiat bere presunera pixka bat «trata-tzeko», bainan beldur nuk, beheitirat ordu, ez ote duen

bederen matatu... Ez bailikek lehen aldia, hori den basare-kin.

OTXOA: Nahi duzuia ikusterat joan nadien?

KONDEA: Ez, hago hemen... Turko bera hunarat etorazten diat... Bai-nan, behar dautak otoi bertze zerbitzu bat egin.

OTXOA: Zure gomendio, jauna.

KONDEA: Berterretxen amari hitzemana zioiat, apur baten buruan, bere semea, hemen berean, buruz-buru ikusten ahalko duela... Nahi nitek horien solasean lekuko egon-hadien; batetik zer erranen duten entzuteko, bertzetik presuneraren zain-dari bezala. Turko ez zautak on jendetarat agertzeko, ez itxuraz eta ez adimenduz.

OTXOA: Ba, ba... gogotik eginen dautzut zerbitzu hori.

ATE-ZAINA: (*Agertuz*) Konde jauna, Turko da hemen.

KONDEA: Ba... Errak, Turko, min hainitz egin dakoka oixtiko presonerari?

TURKO: (*Mintzo da abreki*) Ba, beheiti ordu, eman diot zuk aipatu saldatik xorta bat. (*Irri larri bat dario*)

KONDEA: Zer egin diok?

TURKO: Jo eskuinaz, jo ezkeraz, jo ostikoz... Entzun bazintu haren intzi-rinak lurrean!... Sartuak zituela hemengo espantuak!

KONDEA: Aurpegian ere jo duka?

TURKO: Ba... Bekaina hola ubeldua du... Eta sarri oraino hartu behar ditu ederrak... Eta hil behar bada, utziko duzu gero ene gain... Azken kondenatua ez nuen kordaz urkatu, bainan ene bi esku haukiekin... Orai baitakit nola tinku, hau ere, gisa berean, nahi nuke urkatu.

KONDEA: (*Ez da sobera kontent*) Turko...! Hire presunerak tratatuko dituk nik manatu bezala eta ez hiauri laketa zukan bezala.

TURKO: Ho, jauna, ni beti zure manuari jarraitzen naiz... Azkenik urka-tu dudana enetzat eman zinerautan, erranez urka nezan nahi nuen bezala... Bertze zonbaiten hiltzetan jostatu banaiz, beti zure baimenarekin abusatu naiz... Ez banindu-zu erran oixtiko presonera hori «ontsa tratatzeko», ez nion segur begia ubelduko ukailo kolpez.

KONDEA: Bon, ontsa duk! Orai, habil beheiti... Presonera bezti-araziko eta apainduko duk, jendetarat agertzeko on izanen den gisan, eta hunarat ekarriko duk.

TURKO: Segidan?

KONDEA: Ba, segidan...



TURKO: Ontsa da. (*Jalitzen da*)

KONDEA: (*Otxoari*) Zer gizon asprea hori!...

OTXOA: Duen ofizioarentzat, hauta da.

KONDEA: Ez duka uste ene plana abila dela?... Orai ama-semeak ezarriko ditiat buruz-buru. Hautua emanen ziotieat: edo despeida berek berehala eman dezotela Margaritari, eta libro direla... Edo, ez baditek berenaz bertzerik entzun nahi, semea betiko ilunbetarat kondenatzen dutala.

OTXOA: Eskualde batetik denak gal: berak eta Margarita. Bertzetik, berak salba eta Margarita gal. Bigarren eskualde hau hautatuko ahal dute!

KONDEA: Hala behar litekek hautatu, batere zentzurik balin baditek... Eta orduan, konprenitzen duk, berek Margarita despeituz, ez nitek Margaritaren gogo bortxatzeko lanik... Bere baitarik ene besoetarat jiteko prest lukek. (*Otxoa irriz*) Zer duk irriz? Ene jukutriak hau hola alegeratzen?

OTXOA: Horrek ere ba, bainan ez dezaket konpreni gauza hau: emazte beharretan balin bazira baitezpada, dotzenan hamahiru badituzu zure gomendio... Eta, ez dezaket konpreni zertako horrenbertze odol gaxto eta buru-hauste dabilzkatzun Margarita, eta hura bakarrik, bildu nahiz... Berdin, segur naiz, bertze zonbaitentzat egin duzun bezala, denbora laburrik barne, Margarita ere ez duzula gehiago zure gostukoa izanen eta zutarik urrunduko duzula.

KONDEA: Zer nahi duk, hori amodioaren legea duk! Amodioaren harat hunatetan badituk bi maila. Lehen maila: maite dukanaren ihiztatzea... Bigarrena, harrapatu ihizi haren jatea... Mementokotz ihizian ari nauk... Ihizi bat badiat altxatua, paregabea... Eni iheska zabilak eta ez nauk hura begistatua duen ihiztari bakarra... Ihizi hori nahi nitek ene saretarat bildu, bera baino abilago naizela erakusteko eta bertze ihiztari nausitzeko plazerrez... Gizonak hola gaituk... Ihizi aisiegi eskuratuk ez dik estimurik... Penez eta izerdiz bildu ihizia hamarretan gozoago duk.

OTXOA: (*Irriz*) Hola balin bada amodioaren harat-hunata oraino ere, guk zure xakurrek, izanen dugu lan, zuri ihizi hurbiltzen.

KONDEA: (*Irriz*) Ba... Bazukek hori ere.

ATE-ZAINA: (*Agertuz*) Konde jauna, Turko hemen da bere presunerarekin.

KONDEA: Bon. Sar-araz zazu... Hik, Otxoa, barne huntan hartuko duk arta Berterretxez. (*Turko sartzen da, Berterretx kordatik... Hunek begia ubeldua du eta iduriz lebertua da*)

TURKO: (*Berterretxi*) Ale... Belaunika hadi nausiaren aintzinean...

BERTERRETX: Ez diat kriminelari agurrik egiten.

TURKO: (*Samur*) Heel... Kasko tzar zorritsua, hi...

KONDEA: Turko... Gizon hori libra zak bere kordetarik eta ate giblean egonen haiz, horren berriz estekatzeko, hemendik jaliko delarik.

TURKO: Heel! Hau hemen libratu? Bainan eskapatuko da...

KONDEA: Ez... Otxoak zainduko dik hemen deno...

TURKO: (*Estekak kenduz*) Otxoak? Zer naiz? Ni ez aski handi horren hemen zaintzeko?...

KONDEA: Turko, obedi-zak ixilik!

TURKO: Ba... Hau ene presonera da... Eni emana dautazu tratatzeko... Ez du hunen gainean Otxoak dretxorik... (*Ostiko bat ematen dio Berterretxi*) To, hau gehiago... Sarri ukanen dituk gaineratekoak.

KONDEA: Turko, babil ate gibelerat. (*Turko jalitzen da, erdi errabian... Berterretxi*) Beti hitz beretan hiza edo behere hortan egoiteak guritu dik hire kasko gogor hori?

BERTERRETX: Arrazoin duen kaskoa ez da guritzen, harroka baino gehiago.

KONDEA: Kontzientziak ez dauka hire buruzagieri obeditzeko manatzen?

BERTERRETX: Zureak ez dautzuia gaizki ari zirela salatzen?

KONDEA: Katiximan ikasi ahal duk lurreko buruzagiek Jainkoarengatik dutela beren kargua?

BERTERRETX: Katiximan ikasi dut ere, kargudun sartzea eta karguaren erabiltzea, gizon lan direla.

KONDEA: Ez dakika buruzagieri desobeditzea, Jainkoari berari desobeditzea dela?...

BERTERRETX: Batzuetan ba... Bainan badakit ere, bertze batzuetan, Jainkoari obeditzeko, behar dela buruzagieri desobeditu.

KONDEA: Zer huts atzemaiten dautak ene karguko erabildidetan?... Zer duk enetzat erraiteko?

BERTERRETX: Duzun kargua, zure menekoen zerbitzatzeko duzu... Heiek zerbitzatzeko orde, zure burua duzu zerbitzatzen.

KONDEA: Ene meneko leialak ez dituk nitaz arranguratzen... Beha-zak Otxoari...



BERTERRETX: Zure lausengariek ez dute zutaz arranguratzetik... Hainitz ere zure beldurrak dauzka mutu... Zure zerbitzariak, beharbada zu zerbitzatzen zaituzte, baina zerbitzatzen gaituzte gu?

KONDEA: Menekoen dretxoak beti errespetatu ditiat...

BERTERRETX: Eneak ere ba ote?

KONDEA: Hi hemen preso altxatuz, ene menekoen ona eta bakea ditiat finkatzen... hire izpiritua ere baituk eta bertzen kutsagailu bailukek.

BERTERRETX: Eta zoin dretxo sakraturen errespetuz, nauzu Turkori libratu?

KONDEA: Ba, apur bat, Turkoaren eskutan egon haiz. Baina abisatzen haut, alderat eta betikotz libratuko haut nun ez hiza kanbiatzen. Hire ama hemen duk sahetsean... Amarekin, hire solasak erabiliko dituk... Solas heien ondotik, bi ate: huntarik, Turkoaren ganberetarat duk bidea... Bigarren ate huntarik berriz, kanporat eta libertaterat... Hire gogoetak eginzik. *(Ate-zaina deitzen du)*

ATE-ZAINA: *(Agertuz)* Zure zerbitzari, jauna!

KONDEA: Pierra, Berterretxeko andrea sar-araz zazu... *(Pierra jaltzen da... Berterretxeri)* Otxoa egonen duk hemen hire zaindari eta zuen solasen lekuko... Eta, pentsatzen diat hire amari ez diokala salatuko nola bildua dukan begiko ubela hori... Nahi baduk haren bihotza oraino gehiago ilundu, aski diozkak behere hortako xehetasunak ematea. *(Jaltzen da)*

ATE-ZAINA: *(Agertuz)* Berterretxeko andrea.

OTXOA: Sar bedi.

MARISANTS: O, hi Mattin! *(Nigarrez lotzen da)*

OTXOA: Mintzatuko zarete zu hortik eta hau lekutik, elgarretarat hurbildu gabe... Presuneren erreglamendua hola da.

MARISANTS: Baina, zer duk begiko ubela hori?... Zer egin haute, joka erabili?

BERTERRETX: Ez ama... Presondegirako eskaleretan lerratu naiz eta erori... Ez da hori fitsik.

MARISANTS: Ha, Mattin, izigarri zautak kondeak proposatzen duen hautu latza. Batetik libro Margarita gabe, bertzetik preso Margarita ez utziz.

BERTERRETX: Zoin eskualde behar dutala hautatu zautzu iduritzen ama?

MARISANTS: Ene bihotzak, agian libro eta ene ondorat bizitzetat etorriko haizela, ziok. Ene adimenduak aldiz, norbait hitakela lotu sailari bururaino jarraikiz.

BERTERRETX: Ama, ene hautua egina da... Norbait nahiago dut izan, zerbaiz baino...

MARISANTS: Bihotza lehertua, baina barnean fier, entzuten diat hire errepusta... Berterretxek odola ez duk galtzen ari denborarekin, baina suhartzen.

BERTERRETX: Ama, konde higuinaren zangopean lehertua dagon jendearen atzartzeko, norbaitek behar du xutitu, bere odolaz sinatzen badu ere.

MARISANTS: Hire odolekoak, egundainotik toki hautan, izan dituk jende xerex... Kalbarioan zeruko ama bezala, hire sakrifizioaz nigarrez baina hura onartuz, kausituko duk hire ama ere.

BERTERRETX: Milesker, ama, zure elez... eta milesker Jainkoari eman dautan amarentzat... Irrisku baita ez dugula beharbada buruz-buru berriz elgar ikusiko, galdezko akta bat nahi dautut orai beretik egin.

MARISANTS: Mintza hadi...

BERTERRETX: Margaritari jakin-araz zaiozu ene azken pentsamendua harentzat izanen dela... Ez dut dudarik, hura ere eni leial egonen dela... Hori zure ahaletan bada, ama, galdatzen dautut Margarita beti trata dezazun enekin Berterretxean sartu izan balitz bezala.

MARISANTS: Hala egingen diat, hiregatik eta ere, harentzat dudan estimuarengatik.

OTXOA: Burua galtzen ari zaretea?... Ez zaretea ohartzen zuen bizia errekaratuz, ez duzuela deus ontzen, ez Margaritaren sortea, eta ez zuena!

BERTERRETX: Ohorerik gabeko bizia baino, ohorezko heriotzea, sortehoba da guretzat!

OTXOA: Zuen ele apainduak, ez dira enoxenkeria batzu baizik... Zer duzue onduko, hilak izanen zaretelarik?

BERTERRETX: Hiltze batzuk bizia ereiten dute... Ene heriotzearen ondorioak baliosenetarik izan ditazke biziko direnentzat!

OTXOA: Xoro frango ikusi diat ene bizian... *(Irri mehar bat dariola)* Hire heineko guti...

BERTERRETX: Bazine, zu ere, zure nausiaren zerbitzari zintzo, holako itsuskeriarik ez laiteke hemen gertatuko.



OTXOA: Ez ahal diat ene nausia ontsa zerbitzatzen?

BERTERRETX: Ba! Mutil batzu badira beren nausien iguzki eta bertze batzu, heien... muki.

OTXOA: Ene nausiak ez dik ni baino zerbitzari leialagorik.

BERTERRETX: Zure nausiak ez du zu baino zerbitzari etsaiagorik, egiaz eta ongiatz zerbitzatzeko orde, lausenguz eta gaizkiaz zerbitzatzen baituzu.

KONDEA: (*Agertuz*) Pentsatzen dut engoitik aski denbora izan duzuela zuen eleen erabiltzeko eta xedeen hartzeko. (*Berterretxi*) Zoin ate hautatzen duk, kanpoko edo presondegikoa?

BERTERRETX: Libertatearen atea dut hautatzen.

KONDEA: (*Arrunt lanotua*) Ontsa duk!... Adimenduz ari haiz! Ez zauk dolutuko!... Kasko handiko gizona zuian hire aita zena... Haren zentzutik bildu dukala, erakusten duk egungo hautua eginez... Atxikak Margaritari buruz emaiten dautakan hitza... Utzak hura burutik. Nik ene hitza atxikiko daiat... Horra libertatearen atea, libro haiz... Segidan jali hadi. (*Berterretx, emeki, goratik kondeari so eginez, presundegiko ateari buruz doa*) Ez duk hori hire atea... Bertze hau duk!

BERTERRETX: (*Fermuki*) Ez jauna... Ez naiz tronpatzen... Ene aita era-kutsi dautan libertatearen atea, hau da!...

KONDEA: Zer?... Zer haiz?... Nitaz trufatzen?

BERTERRETX: (*Boza larrituz*) Gizona egiazki libro da, ez gorputza libro. Ez dut onartzen zure merkatua... Esteka-atzu, nahi badi-tzu, ene zango-eskuak... Bainan gogoa libro nahi dut... Gogoa da gizonaren zimendua... Gogoa libro izaitean da egiazko libertatea.

KONDEA: (*Oihuz*) Zer!... Ukan zafraldiak, begi uspeltzeak ez hau oraino hezi... Hanbat gaixto hiretzat... Turko... Nun haiz, Turko? (*Agertzen da*)... Gizon hori hiretzat... Nahi dukana egizak hortarik! (*Turkok estekatzen du. Marisants nigarrez dago*)

BERTERRETX: Madarikatua izan bedi bere amaren aintzinean hola semea tratatzen duen gizona...

KONDEA: (*Amari*) Eta zu!... Kanporat hemendik!... Aski badut begien aintzinean jasanik holako bipera xitatu duen ama... Kanporat, herresta!

MARISANTS: (*Semeari*) Seme, egin zak gogor hola... Hitaz fier nauk. (*Kondeari mespreziatuki*) Buruzagi kotillunkari, jende xehetarik den ama batek mespresatzen zaitu.

KONDEA: Kanporat!... (*Berak pusatzen du*) Herresta kopetadun zirtzilak! Asea nauk zuen ele putz-hantuez... Luzegi diat pazientzia zuekilan harturik... Orai, jastatuko duzue ene mendekioa.

TURKO: Jauna, joaiten ahal duta? (*Berterretxek mintzo da*)

KONDEA: Ba... Errana daiat oixtian... Hiretzat gizon hori... ez zezakeiat gehiago jasan begien bixtan.

TURKO: (*Kontentu larri batekin*) Bon, bon, utz-azu ene gain! Nik badut hunentzat zintzurra leuntzen duen salda bat hauta... (*Berterretx kanporat pusatuz*) Ale hator bazkaiterat behere hortarat! (*Jalitzen da*)

OTXOA: Nausia, uste dut goizegi Berterretx ematen diozula pazkatzat Turkori.

KONDEA: Zertako derasak hori?

OTXOA: Ixtantean, Margarita hemen izanen da... Parte on bat, Berterretxengatik heldu da... Margaritaren biltzeko, Berterretxen beharra izan dezakezu oraino ere... Beldur naiz, Berterretx hila kausitzen badu, Margarita zuretzat jazarkunde izigarri batean jar dadien... Zer gerta ere, hobe laiteke gizon hori bizirik beiratzea.

KONDEA: Ba... Arrazoina duk naski... Habil beraz berehala Turkori erraiterat gizon hori ez dezan hunki!...

OTXOA: Ba, hoberenik. (*Jalitzen da*)

KONDEA: (*Bakarrik*) Hau bizia!... Bon, zeri lot orai?... Ha ba... Sarriko festa zertan ote dugu?... Haatik, Margarita lehen... Ontsa errezebi dezagun. (*Ate-zaina deitzen du*)

ATE-ZAINA: (*Agertuz*) Zure zerbitzari, jauna!

KONDEA: Pierra, errozute ene bi dendarieri, ene festa egunetako jantzi ederra ekar eta prepara dezaten... Musikariari ere, errozu jin dadien, apur baten buruan.

ATE-ZAINA: Zure zerbitzari, jauna. (*Jalitzen da*)

KONDEA: (*Bere baitan*) Zure zerbitzari, zure zerbitzari!... Nundik jalia ote du horrek hizkuntza zeremoniatu hori, nardatzen bainau bere horrekin! (*Otxoa sartzen da brankoan*) Eta?... Nola hartu du Turkok?

OTXOA: Erotu zaut... Segidan heldu dela zu aurkitzerat, gibeletik dut!... Otoi, ezti-zazu!

TURKO: (*Sartzen da, kopeta galernatsu*) Jauna, ene kargua uzten dut... Ene ordaina atzeman dezazun, abisatzerat heldu naiz.

KONDEA: Zer duk, gaizo Turko? Zer duk, hola kexu izaiteko!



TURKO: Ez naiz ni haur bat, erabiltzen nauzun bezala ibiltzeko. Dударик gabe zerbait baduzu ene kontra, ni hola desohoratzeko!

KONDEA: Zer derasak?... Zer desohore emaiten daiat nik?

TURKO: Ba, presonerak arrunt gaina hartuko daut, ikusiz ez dudala hari eskua hedatzeko baimenik. Jada trufa egina daut... Orai bietan eginen baitu...

KONDEA: Zer trufa egin dauk?

TURKO: Ba, «tokero beltza» erraiten daut!

KONDEA: (*Erdi irriz*) Bon, bon, ez hadila kexa... Eni ere «Potzo» erraiten zaitatek.

TURKO: (*Irriz*) Ba, ba, egia da...

KONDEA: Bon! Errak, Turko, hi ene zerbitzari leial bat haiz, eta adixkide on bat... Ez hadila kexa Berterretx xoro horren erranez. Bentzutuko duk eta bere espantua sartuko diozkak. Bainan ez duk oraino hortako tenorea... Hartzak pazientzia... Azken hitza hire izanen duk... Errak, eta... sarriko festa horri buruz apailatzen ari hiza? Pentsatzen diat pazko bezpera hau ontsa ohoratuko dukala!...

TURKO: (*Loriatua*) Ba, desafioa igorria diotet soldado guzieri, zoinek pitzarretik arno gehiago edan, norbaitek ehun konta artean.

KONDEA: To... Zahagi bat arno hire alde pariatzen diat nahi duenari... Bon... Orai, habil beheiti, eta hago deskantsuan... Eta, sarri artio, Turko!

TURKO: Ba, sarri artio, nausia! (*Jalitz*)

OTXOA: (*Irriz*) Zoin abilki dakizun, zuk, jendeen biltzen!

KONDEA: Ba, jende hainitz, haurrak bezala dituk... Ez hadila har heiekin arrazoinka, bainan utz-aitzik barneko suminduraren berdurtzerat... Horrek berak purgatzan eta deskantsatzen ditik. Eta, hola arindu ondoan, olio xorta bat ixurtzen badiotek goxagarri, zauriaren gainerat, arrunt hire kideko bilakatzen dituk.

OTXOA: Hola jendeen hartzeko, behar da gisa hartako jitea. Nik jite hori ez dut.

KONDEA: Bon... Horiek guziak hola, ixtantean Margarita hemen izanen baitugu, hik eta nik behar diagu behere hortarat itzuli bat egin... Sarriko festa zertan den ikusi... Eta, soldadoak apailatu ohorezki errezebi dezaten Margarita zubi aintzinerat helduko delarik...

OTXOA: Nahi baduzu, nihaiz han egonen naiz haren errezebitzeko...

KONDEA: To... Ontsa lukek!... Ba zerbitzu hori egin dezadak. (*Ate-zaina deitzen du*)

ATE-ZAINA: (*Agertuz*) Zure zerbitzari, jauna.

KONDEA: Musikariari eta bi dendarieri errozute, ene beztitzeko puskak prepara ditzaten hemen berean eta egon ditene goait.

ATE-ZAINA: Heldu dira preseski!

KONDEA: Bon, ontsa da... Abisa-atzu... Haugi, hi, Otxoa! (*Jalitzan dira*)

OIHALA



BIGARREN GERTALDIA

ATE-ZAINA: (*Bertze hirueri*) Entzun duzue nausiak zer erran duen? Sar zaitzte. (*Sartzen dira*)

MUSIKARIA: Te, gure Potzo ez dugu hemen... Eginen dut nik haren ordaingoa. (*Kondea imitatu ez errezibitzen ditu bi dendariak*) Aintzina zaitzte, ene perla finak... Zu Arroxa, ene arrosa... Eta zu Maddalen, enetzat beti lehen... Kili-kili-kili. (*Kokots aspian kilikatzen ditu*)

ARROXA: Ba, omere onean balin bada, hola gaitu errezebituko... Baina tzarrean bada, orduan kasu behiak eta orgak! (*Ate-zainari*) Errazu, Pierra, zer omere du egun gure Potzok?

ATE-ZAINA: Nausiak, Berterretxi, Ezpeldoiko Margarita nahi dio ebatsi. Berterretx, Turko ikaragarriari libratua dio... Orain, Margaritaren goait dago. Ha, ez zen holakorik hemen gertatzen nausi zaharraren denboran!

ARROXA: Oas, behar ginuke Margarita abisatu... Bertzenaz, hura ere bertze zenbait bezala, xahu da gure Potzo zikin horrekin.

ATE-ZAINA: Margarita abisatu... Kasu emazu ez zitza nausiak harrapa krima merke baitu horrek! (*jalitzen da*)

ARROXA: (*Musikariari*) Uste duzua, gu ere, berdin Turkori libra gintzazkela, zerbaitetan huts egiten baginio?

MUSIKARIA: Uste? Ez... Baina segur! Hori den ustelarekin, ez luke dudarik bere zerbitzarien sakrifikatzeko, hurbilagoak egiten dituenaz geroz.

ARROXA: Bizkitartean, badaki ba leunki ere plantatzen.

MARISANTS: Ba, norekin den, eta zerbait nahi duelarik ardetsi... Baina ez du horrek bihotzik, bere alde baizik.

KONDEA: (*Sartzen da, alegera eta jostakin, beretzat aire arin bat xaramelatzen duela*) Hor zaretea, ene perla finak, zu Arroxa ene arrosa eta zu Maddalen enetzat beti lehen, kili-kili-kili. Sarriko festarentzat oro prest presta ditugu... Ikusi ditut dantzariak, beren arropa berritan; barrika arnoak dutxulutan dira; soldadoek erribot egin behar dutela diote eta desafio bat gaitza badute Turkorekin, zeinek pizarretik arno gehiago edan, ehun konda artean. Eta orain behar dut bezitu, festa-ko erreginarene errezebitzeko... Zuek biek lagunduko nau-

zue eta zuek, musikaria, bota eni amodiozko aire goxo batzu. (*Bezitu da, kapa eta oinetako ederrez, espata luzeaz, mustatze ileak orraztatutak... Batzuetan mintzo da zerbitzariekin, bertze batzuetan ixilik daude edo kondeak aboz konpainiatzen musika*) (*Arroxari*) Ez dautazu galdatzen ere noren errezebitzeko hoin ederki apaintzen naizen!

ARROXA: Zuharek erran daukuzu, jauna: Sarriko festako erreginarene errezebitzeko!

KONDEA: Baina, badakizua nor den delako erregina?

ARROXA: Ez dakigu, jauna.

KONDEA: Pentsa zuek, Arroxa!

ARROXA: Beltzuntze jauregiko alaba...

KONDEA: Ez... Ez zira... Ean zuek, Maddalen?

MADDALEN: Hazparne Zaldubi jauregiko alaba...

KONDEA: Ez eta ere... Ean berriz ere, zuek Arroxa...

ARROXA: Urruña Urtubia jauregiko!

KONDEA: Ez eta ere... Nehork uste ez duena izanen da hemen sarri erregina... Eta ez jauregiko alabetarik, baina etxalde batetako... Zuen kuriostasunak pixka bat sofri dezan, batere ez dautzuet salatuko nor den... Esperantza dute haatik, jitean, ohoratuko duzuela erregina bati zor zaion bezala... Badakizue nola bezitzen dugun, usaian, festetako erregina... Zuen gain izanen da aurtengoaren bezitza. Armariotan harzkitzue behar diren arropak... Eta, pentsatzen dute, aurtengoa behin ere baino apainduago izanen dela... Ean ikusi miraila, aski eder naizen erregina horren errezebitzeko. (*Ikusi ondoan*) Ba, iduritzen zaut ez naizela sobera itsusi... Ontsa kausitzen nuzua?...

ARROXA: Ez da behin ere hemen sartu hoin printze ederrik, jauna...

KONDEA: Hobe, hobe, Arroxa... Kili-kili. (*Biak kilikatzen ditu kokots pear*) Kontent naiz...

ATE-ZAINA: (*Agertuz*) Jauna, Ezpeldoiko familiak nahi zaitu mintzatu...

KONDEA: Ean, nor dira hor?

ATE-ZAINA: Jaun-andereak, alabarekin...

KONDEA: Bon, ontsa da... Zuek hiruak, otoi erretira zaitzte. Errazu Pierra (*dudetari dago*)... Hiruak sararaz zatzu... Edo (*dudetari*)... Ez... Sar araz zatzu bakarrik jaun-andereak, eta Otxoari errozu apur bat, andere Margarita konpainia dezan.

ATE-ZAINA: Zure zerbitzari, jauna!



KONDEA: (*Bakarrik*) Onetik ala gaxtotik behar ote dugu jastatu? Laster ageriko.

ATE-ZAINA: (*Idekiz*) Ezpeldoiko jaun-andereak, jauna! (*Sartzen dira*)

KONDEA: Aintzinat, jaun-andereak... Izan zaitezte hemen ongi etorri... Jar zaitezte! (*Bera jartzen da ohorezko kadiran*) Eta?... Zertan da Margaritaren gogoia?... Entseatu zireztea haren lanotzerat eni buruz, hitzeman zinerautaten bezala?

EZPELDOI: Gure egin-ahalak egin ditugu bere planak bertzelaka ditzan!

KONDEA: Heldu izan zireztea zerbaitezarat?

EZPELDOI: Ez du iduri gure kontseiluek biziki kilikatzen dutela.

KONDEA: Bainan, zuen alaba, ez duzueia zuek manatzen?

EZPELDOI: Dakizun bezala, ni ez naiz aitaizun besterik? Eta gure Margarita betitik bihurria izan da... Orai ere, ez du berea bertzerik entzun nahi... Berterretx duela maite, eta harekin nahi duela bere bizia apailatu.

KONDEA: (*Biz-i-bizia*) Bainan ez duia ikusten zer galtzen duen ene eskaintza errefusatzuz?... Ohorezko bizitze bat... Etxekoan zoriona! Ezpeldoia gora altxatua!...

EZPELDOI: Aski eta aski aldiz, horiek guziak errepikatzen diozkagu... Jo ez bertze guzitan ibili dugu. Bainan, bere gogoia arras Berterretxetan dauka.

KONDEA: Bainan, zer debru kausitzen dio Berterretxeri, hola hari bere bihotza josteko?... Eta zuek, zertako uzten duzue harekin gurutzatzerat?

EZPELDOI: Egin ahal guziak egin ditugu bat bertzetik berexteko... Bainan, dakizun bezala, gure etxea Andozeko errekaen buruan da... Eta, gure ernetasun guziak gatik, errekek gordetegi sobera ditu, gazte horiek, elgar ikustetik begiratzeko.

KONDEA: Bota bortxaz komenturat, hoin bihurria balin bada...

EZPELDOI: Jauna, ez nuke nahi uste izan dezazun gure fermutasun eskasian dagola Margarita bere hartan tematua... Hainitz zor dautzut... Beti zure zerbitzari leiala izan naiz... Eta, oraino ere, zure desirak enetzat manu batzu izanen dira...

KONDEA: Ez Ezpeldo, ez dautzut ene estima kentzen, ez eta ere mehartzen... Bainan, zure abantailetan, enetan bezenbat, laiteken zerbitzu bat galdatau dautzut Margarita enekotzea... Zuganik beti erroik zerbitzatua izan bainaiz, halako kexadura batek jotzen nau, lehen aldikotz ene nahikundea ez baituzu betetzen.

EZPELDOI: Bortxaka hartzeak, kasu huntan, ez zaitu onduko, ez eta ere Margarita komentuan sartzeak.

KONDEA: Arrazoina duzu... Bainan, nolaz, iduritzen zautzu, Margarita bil ginezakela gure xederat?

EZPELDOI: Dagola hemen... Hemen egonez, ez da Berterretxekin gurutzatuko... Eta, hemengo bizia hartuz geroz, ez dut uste Berterretxekotik nahiko duen.

KONDEA: Hemen egon nahiko duia?

EZPELDOI: Beharko, erranez geroz... Haatik ondotik, zuri izanen da haren hemen laketaraztea...

KONDEA: Ez baitakit haren gogoaren berri, bil-azue otoi eztiki hemen egoiterat... Lausenga-azue!... Errozue sarriko festa ederretat gomit dela... Ez dela holako gomitarik errefusatzan, eta holako.

EZPELDOI: Ez zaitela beldur izan hura ez hemen egoiteaz... Egon-arazteko kargua utz-azu ene gain.

KONDEA: Bon, ontsa da... Beraz, Margarita hunarat sararaziko dut... Eta, utziko ziuztet harekin, hiruak bakarrik. (*Ate-zaina deitzen du*)

ATE-ZAINA: (*Agertuz*) Zure zerbitzari, jauna!

KONDEA: Beraz, zuen kondu haren hemen egonaraztea onez-onean... Apur baten buruan jinen nitzautzue, zuen solasak bururatuak izanen dituzuelarik. (*Jalix*) Lan on egingen ahal duzue!

EZPELDOI: Zaude deskantsuan... Izanen duzu satifamendu. (*Biak gelditzen dira*)

DOMINIKA: Oas!... Izanen dugu lan Margaritaren biltzen.

EZPELDOI: Ni mintzatuko nitzaio... Zu zaude enekin.

ATE-ZAINA: (*Idekiz*) Ezpeldoiko alaba.

MARGARITA: (*Sartuz*) Jes!... Bakarrik zireztea?

EZPELDOI: Ba, hala gitun... (*Apur bat ixilik*) Entzun-zan Margarita! Bortueder jaun kondearekin egon gitun!... Hi behar omen hu, hemen, zenbait egunentzat.

MARGARITA: Ez ahal diozue baietz erran?

EZPELDOI: Hemen emango duen festarat gomitatzan hu!... Gisa hortako zerbitzurik ez dun errefusatzan.

MARGARITA: Berterretx jauregi hunen zolan preso, eta ni haren gainean, dantzan... Hori dea ezin errefusatzuko zerbitzua?

EZPELDOI: Hire adinean, gauzak ez ditun aski urrun ikusten... Urrats egingiten duenak, aintzinerat behar din behatu, eta ez zango muturreri!... Jakin zan, Berterretx galtzeaz baino ondorio



makurragokoak ekar lezazkela hire errefusak... Hortako, hemen geldituko hiz... Eta, esperantza dinagu, satifamendu emanen dionala hemengo nausiari... (*Margarita, asaldatua, nigarrez hipaka lotzen da*)

EZPELDOI: (*Idorki*) Eta sintsakeria guti hemen!... Aditzen dun? Hire adinean, bahuke beste frango gogotik hire ordaintza egin lezaketenik.

KONDEA: (*Agertuz, irri falsu batekin*) Agur, Margarita!... Zer?... Holako aingeru ederra nigarrez?... Zer arrazoinez ditu begiak hola bustiak?

EZPELDOI: Jauna, uzten dautzugu zure gomendio... Pentsatzen dugu umil agertuko zautzula eta Ezpeldoia ohoratuko duela!

KONDEA: Ohore bat izanen da ene jauregiarentzat holako izar baten apaindura... Fida zaitezte eni... Zuen alaba nehon baino hobekiago izanen da ene jauregian... Hasteko, Margarita dut aurten berexia, gure festen erreginatzat... Orai beretik emanen ditut manuak behti eta ohora dezaten hemen denek, jauregiko andere kontesa balitz bezala.

EZPELDOI: Aditzen dun?... Eta orai, hire gogoetak egin-zkin! Goazen, Dominika!

DOMINIKA: Oas, haurra, ekazu bederen musu bat. (*Amak bortxaz bezala, hartzen dio musu bat... jalitzen dira*)

KONDEA: (*Margarita beti mutur dago... Kondea barat eta hunarat dabil... Ez daki zer erran... Apur baten buruan*) Margarita, hunarat sartzeko eguna orroitzapen trixteko eguna izanen duzu... Bainen, holako egunek omen dituzte biharamun goxoak.

MARGARITA: Egun goxorik ez ditake enetzat. Berterretxik gabe, are gutiago, Berterretx preso izanen deno.

KONDEA: Uste duzuia ez ditaken bihotzik, zurearen hazteko on laitekenik, Berterretxek kanpo?

MARGARITA: Bihotz eskaintzale frango izan dut... Nihaurek dakit norena onart.

KONDEA: Eta, gerta baladi, usaiak kanpoko norbait goragokoaren bihotza zautzula eskainia, hura ere errefusa zinezakea?

MARGARITA: Goragotik eskainia zaitan amodioaz mesfidatzen naiz... Amodio hura, naizen pobreak amoina bezala, edo eskaintzalearen satifagailu bezala, baita eskainia... Nahiago dut amodio partikatua, ezenetz eta amodio iretsia.

KONDEA: Izan ditake ba amodio zintzoa, gorako jendeen bihotzean, apalagoentzat!...

MARGARITA: Gaina eta beheara direlarik ezkontzen, heien arteko amodioa maizenik maingua gertatzen da.

KONDEA: Zer du zuri Berterretxek eskaintzeko, nik eskain ez dezaketanik?

MARGARITA: Harek eskaintzen dautana da: ene alderako estimua... Hori da, zukanik, ukan ez dezaketana.

KONDEA: Zer dakizu ez dezakezula ene estimurik izan?

MARGARITA: Zure zerbitzatzeko desiratzen bainauzu, eta ez zuk ni zerbitzatzeko.

KONDEA: Nik ez dakit nundik eta norat hoin gaxtoki jukatzen nauzun.

MARGARITA: Faltadun ez den gizon bat preso altxatu duzu... Ni hartarik berexi beharrez, hunarat jukutiaz bildu nauzu... Ez ote dut aski arrazoin zu gaxtoki jukatzeke?

KONDEA: Ez gaiten samur... Gerokoak gero, egungotz zerbitzu bat galdatzen dautzut... Sarri idekitzen baititugu jauregiko festak, festa horietan agert zaiten, erregina behti... Hortako zaitut hunarat egun deitua, ez bertze fitsetako... Bertze urtez, jauregitako alaberi galdatzen dioten kargua, nahi nuke aurten zuk bete dezazun!... Berdin ikasi duzunaz komentuan, edozoin jauregitako alaberi paretzeko on zira... Onartzen dautazuia ene gomita?...

MARGARITA: Enetzat ez ditake festarik, ene zangotako taulen azpian Berterretx preso deno... Hura pairamenetan eta ni plazerretan, ez dezaket holakorik onart.

KONDEA: Ba, badakit badirela sahetsetik buru muntatzaleak... Beharbada erran ere dautzute: Berterretx hil dutala edo zanpatu, edo nik dakita zer... Jakin-azu Berterretx ez dela malurus... Eta, galdatzen duzunaz geroz, sarri berean Berterretx etxerat libro izanen da... Kontent zirela hola?

MARGARITA: Erraitea errex da... Solasak baino nahiago nituzke obrak.

KONDEA: Hitz emaiten dautzut, eta enetzat hitza hitz da, sarri berean Berterretx ikusten ahalko duzula libro, etxeko bidea hartzen... Bazautzuia? (*Margarita ixilik dago*) Bon, beraz alegera zaite... Eta orai beretik nahi baitzaitut erregina behti ikusi, ene jauregiko dendariak deituko daukitzut (*Ate-zaina deitzen du*).

ATE-ZAINA: (*Agertuz*) Zure zerbitzari, jauna.



KONDEA: Pierra, errozute Arroxiari eta Maddaleni erreginaren beztitzerat jin ditzen. (*Ate-zaina jalitzzen da*) (*Alegeraki mintzo da Margaritari*) Eta orai, andere erregina (*salutatzen du*), zure arpegia airos eta alegera bilaka dadiela... korona buruan, errege kaderan jarririk, ez ditake nehun zu baino dixtirantagorik. (*Arroxa eta Maddalen agertzen dira*)... Ha, hor zaretea? Ene perla finak, huna beztitu behar dautazuen andere erregina. Lan egizue zuen talendu hoberenez, eta armariotarik harazkitzue atzeman dezazketzuen arropa ederrenak... Nahi dut aurtengo erregina, izan dadien behin ere baino ederra goa...

ARROXA: Egin-ahalak eginen ditugu, jauna, hortakotz...

KONDEA: Ba badakit konfientziazko zarete... Deskantsuan egonen naiz, baitakit aintzinetik lan on eginen dautazuela... Uzten zaituztet beraz bakarrik... (*Jalitzzen da, kili-kili-kili eginez bi dendarieri eta doi bat Margaritari*)

ARROXA: Hori gizon kutzua!... Handia da ez baita halere hemen egon, zu beztitzeko denboran... Zato, gaitzeko arropa ederrak badi-tugu berexiak zuretzat.

MARGARITA: Ho, ez dakit ontsa egiten dutan kargu hau onartuz.

ARROXA: Zerendako ez? Hortxet eman zaite. (*Beztitzeko, erdi gorderik egin dadiela, fotoila baten gibelean*)

MARGARITA: Uste duzua Berterretx libratuko duela?

ARROXA: Ha, Berterretx zure gizon-geia izanki!... Gaixoa!...

MARGARITA: Zerendako erraiten duzu «gaixoa» harentzat?

ARROXA: Fitsitako! Fitsitako!... Hola, hitz hori jin baitzaut ahorat... Eta, hitz eman dautzua Berterretx libratuko duela?

MARGARITA: Ba, sarri faltarik gabe... Uste duzua zinez mintzatu zautala?

ARROXA: Ba, ba... Baditake...

MARGARITA: (*Pixka bat asaldatua*) «Baditake», «baditake», bakarrik diozu? Kondeak ez duia bere hitzik beiratzzen?... Zuk badakizu zerbait!... Otoi mintza zaitel!... (*Arroxa badoa leibotik behatzera eta ate gibeletik barrandan egoiten apur bat...*)

MARGARITA: Zer ari zira hola?...

ARROXA: Kasu emaiten dut ean badugun entzule edo ikuslerik... Ba, handien zerbitzari gehienak hola gira... Esklaboak bezala bel-durretan bizi... Kadena urrez estekatuak bainan halere esklaboak.

MARGARITA: Aipa zadazu otoi Berterretx.

ARROXA: Berterretx dohakabea Turkoren eskuetan da...

MARGARITA: Nor da Turko?

ARROXA: Hemengo presondegi-zaina da... Ez ditake gizon okaztagarriagorik izan...

MARGARITA: Ez dela malurus errana daut kondeak...

ARROXA: Turkoren eskuetan ez daiteke urus izan.

MADDALEN: Nik ikusi berria dut, Turkok kadenaz estekatua kondearenganat ekartzen zuela... Bekaina ubeldua zuen.

MARGARITA: Bekaina ubeldua!... Beraz, arras nitaz trufatu da kondea. Sarriko libratuko duela ere hitzemandu daut... (*Nigarrez*) Ho... Ho... Nun erori naiz hemen?...

ARROXA: Hitzemandu dautzua sarri libratuko duela?

MARGARITA: Baietz. Erran dautzut jada...

ARROXA: Orduan, esperantza bat baduzu Berterretx bizirik jaliko dela.

MARGARITA: (*Izugarri samur*) Konde ustela, hastioa!... Ez dut hemen haren akusagailu izan nahi... Ken azkidatzue arropa hau... Abian, ihesi joan behar dut hemendik.

ARROXA: Kontseilu bat, Margarita... Ez zaitela holako urratseri lot... Jaurregia soldadoz inguratua da... Ihesi emaiten bazira, galdua zira eta Berterretx ere ba zurekin...

MARGARITA: Zer behar dut ba egin?

ARROXA: Zaude arratsaren beha... Ikusiko duzunean Berterretx libratuko duen... Gero ere, joaiten ahalko zira ihesi, orai baino kondizione hobetan...

MARGARITA: Eta orai, xuka-aitzu begiak... Kondeari egin-ozu begitarte on... Ez dadiela den gutienik duda zure barneko sentimenduez.

MARGARITA: Ho, ez dakit gehiago nori fida!... Agian zuk eman kontseilua ene onetan izanen da!

ARROXA: Ba, segur hala izanen dela... Bainan, abisatzen zaitut, zakur handiaren kontra duzu partida... Zuri izanen da maltzurarekin, maltzur eta erdi agertzea? Eta, berritx ere, gu bezala egizu... Kanpoz arin ager zaite bainan barnez zurea gogoan.

MARGARITA: Ha, zer ofizioa!... Faltsukeriaren iruten ari behar!

ARROXA: Ez da beharbada ofizio pollita, bainan, hemengotz, baitezpada-koa... Ha, zein ontsa joan zauzkitzun arropa hau!... Gure Potzok, zu ikus-eta, loriarekin erotu behar du... Xo, xo... Badut uste heldu den... Ale, lot gaiten faltsukeriari! (*Sartzen dira Kondea eta Otsoa*)



KONDEA: (*Xoratu, Margarita ikus-eta*) Hau aingeru xoragarria. So egizak, Otxoa, so egizak... Eta, erradak nik ez dudana begi ona, andre gazte hau hautatuz erreginatzen... Ez diagu behin ere hoin ederrik ikusi... Sarri, gomituak harriturik, ahoa zabalik, jan gabe ere egonen dituk, hau ikus-eta... Eta zuek ere, ene perla finak, baduzue zuen parte konplimendu berean.

ARROXA: Jauna, ez da oraino osoki apaindua... Joieria ezartzekoa diogu... Oinetakoak ere bai...

KONDEA: Ontsa da, ontsa da... Bon zoazte eta nahi dut beztitua ikusi, arratsean agertuko den bezala... Korona ez ahantz gero... Apur baten buruan deituko zaituztet... Hemen izanen da zeremonia ttipi bat, erregina berriaren ohoretan!

ARROXA: Zer zeremonia?

KONDEA: Xxt... Hori ene segetua, sudur fin kuriosa zu!... (*Hiruak jaltzen dira*)

ARROXA: Bixkotxe kilako zeremonia izanen ahal da!

KONDEA: Eta, zertako ez bertze zerbeitakilakoa ere!... (*Biak dira... Otxoari*) Errak, zer zauk ene hautuaz?

OTXOA: Ene konplimenduak, nausia! Zure jauregiko apaindurari doakoten gorputza kausitu baituzu.

KONDEA: Ba, sobera maiz, beztituek beztidura die bakarrik... eder. Hemen, beztituek ez dik zorrik beztidurari...

OTXOA: Eta, zertan duzu zure ihiziaren harat-hunata?

KONDEA: Hortaz nahi nian hirekin buruz-buru mintzatu. Margaritari hitzeman zioiat Berterretx libratuko dudala sarri berean... Libratu aintzin, nahi nitek Berterretx bildu Margaritari uko egiterat... Hortakotz, apur baten buruan, Berterretx berritz ere hemen izanen duk... Sare berri bat behar zioiat hedatu... Sari eskaintzaz nahi nitek ene saretarat bildu.

OTXOA: Entseatzeak beti balio du. Bainan ez zaut eni iduritzen gisa hortako ihizia, saretarat bil errexa dela.

KONDEA: Nork zakik? Gizon zenbait guriago dituk agintzeri mehatxueri baino.

OTXOA: (*Irriz*) Ez dakit ihizi hori bilduko duzun, bainan dakitana da ez nukela nahi zu ihiztari eta ni ihizi...

KONDEA: (*Erdi irriz*) Amodioz ihizitan denak, bidean trabak kausitzen ditik... Trabak nekeago eta fantasia erotuago senditzen dik bere baitan, traba heiek bentzutu beharrez. Hanbat gaxto

kontrarioek ez baziotek bide egiten... Hek ingurikatzen ditik edo lehertzen... Joko partida bat... Azkenean, ahulena dik amor emaiten.

ATE-ZAINA: (*Agertuz*) Jauna, Turko hemen da bere presonerarekin.

KONDEA: Arras ontsa... Sar bedi. (*Sartzen da... Bera jartzen da kadira bandedian, eta, apur batez Berterretxeri ixilik beha egon ondoan*) Errak, Berterretx, hitaz pentsaketa egon nuk eta ohartu nuk hutsean nukala hire alderat... Hortakotz egun berean libratzen haut. (*Turko ez da kontent*) Eta, hutsek behar baititek beren pagamena, hamar ardi emanen dauzkiat egin penaren ahantzgarri. Gauza bat daia bakarrik galdatzen... Margaritari hihaurek despeida eman dezokan.

BERTERRETX: Judas hogoita hamar denariotan erosi zuten... Beraz, ene heina hamar ardi direla duzu estimatzen.

KONDEA: Zer petrenitzen duk?... Egin zak hire galdea.

BERTERRETX: Ez naiz ni bihotz tratulanta... Ez dut bihotzik saltzeko, ez eta ere gogorik nehoi berea erosteko edo ebasteko.

KONDEA: Kasu emak, Berterretx, eta gizon agert-hadi... Ez zakala ahantz pagatuz eta gogotik eman nahi ez dukana, urririk eta bortxaz enetzen ahal dudala.

BERTERRETX: Baditake... Bainan hola zuretuak ez bailuke haatik estimu bera!

KONDEA: Onetik ariz, Margarita galduko duk, bainan hire burua salbatuko eta zerbitzatuko ere duk... Txarretik ariz berritz, berdin Margarita galduko duk, eta gainerat hire burua... Horra tratuaren bi eskualdeak... Hiri duk hautatzea.

BERTERRETX: Jada behin libertatearen atea hautatu nauzun... Oraiko tratuan ere, libertatea izanen da ene gidari.

KONDEA: Libertatea!... Zer duk hitz tetele hori?

BERTERRETX: (*Subarki*) Tetelea beharbada zuretzat, bainan ez enetzat... Libertatea zer den nahi duzua jakin?... Libertatea da familian eta adixkidekin deskantsatzea zure erranen barrandari nehor ez delako segurtamenarekin. Libertatea da zuzenki maite duzunarekin gurutzatzea, hortakotz baimenarik nehoi galdatu gabe. Libertatea da arratsetan deskantsuan zure menbro akituen luzatzea, gauaz zure preso altxatzerat etorriko direlako beldurrik gabe. Libertatea da nor-nahirekin eta nunnahirat zure urratsen ibiltzea, norbait ez ote dabilan zure ondotik beti ikaran egon gabe. Libertatea da,



jauna, arratsetan, bere ilunetik presuner trixteak, nigarrez, urrunerat ikusten duen aire garbia, xoriaren hegalkada, izarren dixtira... Horra zertako, biziak ez baitu deus balio libertaterik gabe, naizen zuri oldartzen eta nauzun kondanatzan.

KONDEA: Badakik mintzatzen...

TURKO: (*Kexu*) Ba, sobera uzten duzu mintzatzerat eta, gero, nausitzen zautzu...

KONDEA: Hi, Turko, hago ixilik... (*Urrikariz bezala mintzo*) Gaizo Berterretx... Nola hire burua muntatzen dukan haatik! Ha, ez duk Margarita utzi nahi!... Ez duk uzteko lanik!... Berak utzi hau-eta... Ikas-ak Margarita hemen berean dela, hiri uko egina duela, eta jada kontesa arropetan dela.

BERTERRETX: Ez dut holakorik sinesten!

KONDEA: Jakin-zak aitoren semen ahotik ez dela jaltzen gezurrik... Bertzela apailatu bahintz, berri hunen jakiteak emaiten daukan penatik beiratuko hintudan.

BERTERRETX: Ez dut holakorik sinesten.

KONDEA: Ha ez... Sinetsiko ahal duk bihar jakinen dukalarik Margaritak nola ohoratu izan ditikan, erregina bezala behti, jauregi huntako festak!

BERTERRETX: Margaritak utzi banindu, zertako dautazu galdutuko hari despeida eman dezodan?...

KONDEA: Berterretx herresta, ikas-ak, bertze aldi batekotz, hire buruzagiekin umil agertzen... Eta orai Turko, ereman-zak gizon hori berritz ere beheiti...

TURKO: (*Lorietan*) Eta?... Behar duta pixka bat tratatu? (*Kondeak keinuz ezetz egiten dio. Turkoa errabian*) Ene ofizioa ez da gehiago ohoratua... Presonerak, heien zaintzaleak ere baino hobeki ikusiak dira hemen. (*Jalitzen dira*)

KONDEA: (*Otxoari*) Uste nian zer bait bururatzea, bainan zaila duk gizona, zaila... Ez zaitak iduritzen eskualde hortarik ene xedetarat helduko naizela... Margarita, hori baino errexago izanen duk higatzeko... Zer zauk hiri, to!

OTXOA: Ho, badakizu nausia, ez naiz ni biziki konprenitua emazte ixtoriotan... Nahiago ditut hamar gizon ibili, emazte bat baino. Bainan, nago nola jaliko ziren urrats neke hautarik!

KONDEA: Ez hadila kexa... Ez duk uztarriari ezin usa ditaken migarik, ez eta ere etxekotzen ez den urtzorik! Errak, sarrixago libra-

tuko dautak otoi Berterretx... Bainan sarrixago, erraitearekin. Nahi nitek Margaritak ikus dezan, here begiez, hemendik libro jaltzen.

OTXOA: Ontsa da, nausia... Eginen dut zuk erran bezala...

ATE-ZAINA: (*Agertuz*) Jauna, dantzariak hemen dira.

KONDEA: Ontsa da, Pierra... Sar ditela... Eta errozue ere erreginari eta dendarieri jin ditene.

ATE-ZAINA: Zure zerbitzari, jauna. (*Jalitzen da*)

KONDEA: Sarriko festari buruz, entsegu bat egiteko gomituak ditiat... (*Dantzariak sartzen dira, Musikari buru*) Apaila zaitezte erreginari ohore egiteko gisan. Bon ontsa da... (*Bera emaiten da atean, erregina salutatzen du, hartzen besotik eta joaiten ohorezko kadirarat... Dantzariak ere salutatzen dute... Bi dendariak, emaiten dira kadiraren gibelean*) Are, orai joka dantzari...! (*Dantzariak, orduko jauntziak, emaiten dute «menuet» bat edo bertze... Erregina trixterik dago... Doidoia hartzen du parte esku joitetan*) (*Bururatu eta*) Bon, arras ontsa da... Sarri hol-hola ariko zirezte... Gora zuek... Orai baitira hemen perla fin batzu; biziki bixkotxak maite dituztenak, sahetseko barne batean, baditut preparatuak edari eta bixkotxak... Zoazte hetaz baliatzerat... Andere erregina eta ni, utz gaitzatue biak bakarrik... (*Jalitzen dira salbu Otxoa*) Otxoa, hi babil beheiti... Eta libra zak, erran bezala, badakik nor!...

KONDEA: (*Biak gelditzen dira*) Hek han, eta guk hemen, buruz-buru zer bait on hartuko dugu...

MARGARITA: (*Nardatu aire*) Ez, milesker... Ez naiz fitsiren beharretan.

KONDEA: Ba, edari goxo xorta bat... Behin ere edan ez duzunetik, badut...

MARGARITA: Ezetz, milesker...

KONDEA: Eta, laketuko zirea... Nola kausitzen zira arropa eder hautan? (*Soberaxko hurbiltzen zaio... Margarita baztertzen zaio, alegia deus ez... hol'hola egin bezate, hiru lau aldin, bien arteko eleak ibiltzen dituztelarik*)

MARGARITA: Bertzeentzat, arras ontsa naiz!...

KONDEA: Eta, dantza horiek, ez zauzkitzua gustatu?

MARGARITA: Dantzariak badute merezimendu.

KONDEA: Hauze da kara egiten duzuna!... Ez du iduri gogoia biziki festan duzula!

MARGARITA: Dakizuna pairamenetan izanen deno, ez da enetako festarik.



KONDEA: Pairamenetan... Hori zer hitz larria! Ez dago pairamenetan, eta apur baten buruan, hemendik libro, etxeko bidea hartuko du.

MARGARITA: Hartzen badu ere, ni gabe...

KONDEA: So egizu, Margarita, mintzatuko naiz garbiki... Ez dut zure gogoa deusetan ere bortxatu nahi... Galdatzen dautzut bakarrik, zure eskualdetik, borondate ona erakuts dezazun, eta, hemen laketzerat entsea zaiten.

MARGARITA: Zure alderat borondate onaren erakustea, eman hitzaren jatea eta kontzientzia saltzea laiteke enetzat.

KONDEA: Galdatzen dautzut hemen izan zaiten, ez presunera bat bezala, baina ohorezko gomitatu bat bezala.

MARGARITA: Ez naiz gomitatu bat, baina preso altxatu bat, izanik ere urrezko kadenez estekatua.

KONDEA: Margarita, zure alderako ibilpideak larri aire izan badire ene partetik, barkamendu galdatzen dautzut. Sinets nezazu, ez ditu gaxtakeriak ene urratsak gidatu, baina, zuretzat sendi dudana amodioak. Aspaldi du begiztatua zintudala... Maiz, ihiziaren aitzakian, jiten nintzen zure etxearen inguruetarat, zu, eta bakarrik zu, ikusteagatik... Ez zintudan gehiago galtzen ez bihotzetik, ez burutik... Hartzen ahal nukelarik espos laguntzat, asko eta asko aitoren seme alabetarik, denak gogotik bere gisa utzi ditut. Adixkide haundien erran-merran guziera oldartuz, zu eta zu bakarrik laguntzat hartuko zintudalako ametsetan bizi izan naiz orai artino...

MARGARITA: Ene ametsak ez dira behin ere zuretzat izan, baina Berte-
rretxentzat.

KONDEA: Ba, konprenitzen dut, bihotz hauste bat izanen dela zuretzat haren uztea, baina ez du Berterretxek ere fisik galduko... Hitzemaiten dautzut lagunduko dudala handizki ontasunez eta ohorez...

MARGARITA: Ene etorkizunari ez zaio gonbeni hemengo bizi moldea... Etxaldeko naiz ni eta ez jauregiko.

KONDEA: Ba, hortakotz ere presesi zaitut hautatu... Senditzen dut jende apala ene kontra muntatua dela, frangotan deus arrazoin funtsezkorik gabe. Nahi nituzke ene menekoekin gurutzamenduak goxatu eta azkartu... Zuk ezagutzen baituzu eta zu ere ezagutzen baitzaituzte, iduritzen zaut enekin plantatzen bazine, eskualde huntako jendeentzat, zerbait hobe

atera laitekela... Aire bai edo ezean da hemengo hainitz jendeen inguru.

MARGARITA: Ezkontza bihotzak du manatzen eta ez inguruak.

KONDEA: Arrazoina duzu... Gutarik bakotzak bere baitan sendi du zauri ilun bat, ezin arinduzko huts pizu bat. Haren eztigailu bakarra da, zintzoki maite zaituenaren solas eta sokorri leuna. Aspaldi du ilun samin horrek barnea minberatzen dautala... Hemen nehork ez nau maite. Kanpo edo egiten badautet ere, barnez saltzen naute... Bakarrik bizi naiz, inguruko zerbitzari guziengatik... Beti konpainiatua izanagatik, ez da nehor ni baino konpainia gutiago duenik... Hortako nahi nuke lagun bat, ni konpainiatuko nauena, ez ele zuriz, ez lausengu beldurtiez baina zintzoki, ni maitatuz ez dutanarentzat, baina naizenarentzat... Baitakit zure jitea zoin zuzena eta garbia den, iduritzen zaut nik behar laguna, zu zintezkela.

MARGARITA: Aitortzen dautazun jiteak erraiten daut ez Berterretx saltzeko... Penetan delakotz, oraino hari jarraikiago izateko[...]
jaliko da.

MARGARITA: Ez dut holakorik sinetsiko ikusi-eta baizik.

KONDEA: Hurbil zaite leihu huntarat... Otxoak ene keinu bat aski du Berterretx libratzeko... Hasteko, ez zaitela sobera fida Berterretxek zure alderat daukan amodioaren fermutasunari... Ez baita urrun zure amodioari uko egitetik.

MARGARITA: (*Bizji-bizja*) Ez dut holakorik sinesten!... Eta hortaratu balin bada, eman diozkatzen kolpe txarrez egin da...

KONDEA: Zer kolpe txar?... Sinets nezazu, nehork ez du hunki ere Berterretx... Sartzen bezain fresko jaltzen da... Otxoak keinu egiten dauku (*errepusta ematen dio eskuz*)... Zorigaitzez, ez duzu bizkarrez bertzerik ikusten Berterretx.

MARGARITA: (*Nigarrez ari da*) Nahi nuke harekin mintzatu...

KONDEA: Ez oraino... Baina, mintzatzen ere ahalko zira harekin... Hortakotz, galdatzen dautzut pixka bat igurikatzea... Jasta-azu lehenik hemengo bizitik... Orduan duzu bakarrik, jakinaren gainea, zure hautua egiten ahalko.

MARGARITA: Berterretxek zer bizitik hemen jastatu duen nahi nuke jakin.

KONDEA: Erraiten dautzut berriz ere ontsa artatua izan dela, gisa orotar... Nihaurek araberrako manuak emanik oraino, bere zaintzale Turkoari.



TURKO: (*Bet-betan sartzen da, samur gorrian*) Jauna, hau soberakoa da haatik!... Ez da gaizki nitaz trufatzen Berterretx ustela! Ez zen hoin fier, muturrean joka, ostikoka, lurrean intzirika ibili dudalarik.

KONDEA: (*Samur izigarrian*) Nahi duka ixilik egon, haizen bezalako basa, hi!... Zer dituk molde horiek?... Hola sartzen hiza hemen aterik jo gabe ere!

TURKO: Ba, Berterretx, behin, ene eskuz urka nezan, zuhaurek erran zinerautan...

KONDEA: Zer?... Kanporat!... Habil kanporat hemendik, haizen bezalako sorjesa!... Kanporat! (*Oihuz*) Eta sarri eginen ditiagu konduak! (*Margarita, ikaraz zuritua dago... Kondea hurbiltzen zaio, eta faltuki*)... Ez zazula kasurik egin horren erraneri... Gizon hori erdi eroa baita. Hi hi hi! (*Irri falsu batekin*) Zer jalitzeko orai berritz!

MARGARITA: (*Irri mehar, hotz, errabiazko bat dariola*) Hi hi hi... Ba, ba, zer jalitzeko! (*Biek irri dariote, bakotxak bere moldean*)

OIHALA

HIRUGARREN GERTALDIA

Joka-lekua:

Ezpeldoi etxe-aintzina. Bizpahiru eskalera maila baditu Ezpeldoiko atea. Arbola batzu badira etxe aintzinean... Arbola bati estekatua da Berterretx. Bere ondoan ditu: Kondea, Otxoa eta Turko. Oihala idekitzean, oro ilun agertzen dira, gau arrabots zonbaitekin... Emeki, argi batek erakusten ditu gizonak... Gertaldi huntan, argi ibiltzeak artoski eginak izan ditela.

KONDEA: (*Errabian Berterretxi*) Aitor-zak!... Hi etorri haiz Margaritaren ebasterat... Nun gorde duk?

BERTERRETX: Berritz ere dautzut nik ez dakidala fitsik.

KONDEA: Ez zakala uka... Azpiz elgar adituak zineten... Gauerditan hi hintzen, etxeko bi zaldiekin, jauregiaren murru-pean.

BERTERRETX: Nik ez dakit fitsik.

KONDEA: Zer nahi huen?... Nitaz irriz ase?... Jauregiko festaren erditik, erregina joan dukala espantuka ariz?... Uste huen, festa-rengatik ez dakigula erne egoiten?... Aitor-zak nun gordea dukan Margarita

BERTERRETX: Margaritaren etxea, Ezpeldoia, huna nun duzun... Galda-ozute Ezpeldoikoeri nun ditaken... Berterretxea aski miatu ahal duzu, ohartzeko han ez zela Margaritarik...

KONDEA: Ba, hire etxean ez diagu kausitu Margarita... Eta, orai, ez badia-gu hemen kausitzen, hanbat gaxto hiretzat... Hire azken gogoetak egiten ahal dituk!

BERTERRETX: Ez duzu ni hiltzeko lanik izanen... Hiltzen ari bainaiz jada... Senditzen dut, oixtian ukan ukaldietarik, barnez odol husten ari naizela...

KONDEA: Jakin-zak oixtiko zafraldiak fitsik ez direla, oraino ukanen ditukanen aldean, sekulan Margarita ez badugu harrapatzen. Azken, bainan arras azken aldikotz galdatzen daiat nun gorde dukan Margarita.

BERTERRETX: (*Apur bat ixilik egon ondoan*) Odol husten ari naiz... Apeza galdatzen dut...



KONDEA: Benedizione beharretan bahaiz, ukanen dituk benedizioneak...
Ausarki eta merke oraino, Turkok emanik. (*Ezpeldoiko atea joz*) Ezpeldoi, jeikia zirea?

EZPELDOI: (*Leibotik*) Zer da? Nor zarete hor, holako arrabotsetan, gau betean?

KONDEA: Ni naiz hemen, Bortueder kondea, ene gizonekin.

EZPELDOI: Ha, barkatu jauna!... Heldu naiz idekitzerat.

KONDEA: Errazu, Ezpeldoi, zonbat orenak dira?

EZPELDOI: Orai, goiz argiari buruz ari!

KONDEA: Margarita, gau huntan, hemen agertu dea?

EZPELDOI: Margarita?... Ez, ez da hunarat nehor etorri.

KONDEA: Ba, Berterretx koxkor horrek, bere ustez, gaitzeko lan espantagarria egin du, gauerdi inguruan, oro festan ginelarik, Margaritaren ebasterat zaldiekin jin baita. Berterretxea dena arroatu dugu... Ez da han Margaritarik... Hemen ote zenetz ikusterat jinak gira...

EZPELDOI: Etxe guzia miatzen ahal duzu hemen ere... Ez dugu guk Margaritarik gorde.

KONDEA: Badut zu baitan konfientzia... Badakit ez zarela ni enganutzen ariko... Halere, ixilik selauruan edo hor nunbait gauaz sartua izan baititake, nahi duzuia gibel horietan, beha kolpe bat eman, bi gizon hauen laguntzarekin?...

EZPELDOI: Zure zerbitzuko, jauna, gogotik! (*Ezpeldoi, Turko, Otxoa, jaltzen dira*)

KONDEA: (*Harat eta hunarat dabila*) Pazko goizeko argiak dixtiratuko duen baino lehen, erregina nahi diat jauregirat itzulia... Argia urratzean Margarita ez baduk ene jauregian, hireak egin dik...

BERTERRETX: Jauna, barnetik odolez husten ari naiz... Hiltzerat doan bati, apeza ez ahal duzu errefusatuko!...

KONDEA: Ha! Ez duk kontzientzia bakean...! Margarita nun den errak, eta bakea izanen duk hire baitan, apezarik gabe...

BERTERRETX: (*Apur baten buruan*) Jauna, menbro burutarik hotza senditzen dut, gorputzeratzen ari zautala... Ez dautzut ene ize-nean zerbitzu hori galdatzen, bainan Jainkoaren izenean...

KONDEA: Ha, ha! Ifernuaz beldur haiz?... Hanbat gaxto harat joaiten bahaiz... Hi bezalakoak ez dik bertzerik merexi...

BERTERRETX: Banukelarik zertaz izan minbera zure kontra, ez dautzut ele gaxtorik erranen... Jainkoak barkaturen ahal dautzu... Nik barkatzen dautzut...

KONDEA: Zer duk orai hire burua apezttat hartzen, hola eni atsoluzioa emaiteko?

BERTERRETX: Jesus Jauna, zu bezala nago, egur bati estekaturik!... Zure heriotzeak munduko gizon guziera bezala, eneak inguru huntako gizoneri librantza ekar dezotela... Urrikal zaite nitaz... Nik orori barkatzen diotet (*burua apaltzen du... ezagun du beheiti ari dela*).

OTXOA: (*Agertuz bere lagunekin*) Jauna, etxe guzia kurritu dugu... Ez da hemen Margaritarik...

KONDEA: Ontsa duk... Zuek, Otxoa eta Turko, aski duzue enekin jitea... Behar diagu Berterretxeko borda miatu... Hango belarrean, ez ote den nehor... Zuri, Ezpeldoi, emaiten ahal dautzuta kargu bat?...

EZPELDOI: Ene heinekoa balin bada, gogotik onartuko dut...

KONDEA: Nahi nuke, gu itzuli artio, presuner hau zain dezazun... Eta zain dezazun zintzoki... Badakizu jauregian soldado zinelarik guardia nola egiten zinuen, hal'hala egin-azu hunentzat ere... Nehor ere ez dadiela hunenganat hurbil... Eta mesfida zaite hunen jukutriez. Hasten bazautzu, hiltzerat doala erranka, edo apeza behar duela, ez zazula den gutienik sinets... Badu hol'hola aski enganaturik! Agian ez zaitu zu ere zakuan sartuko...

EZPELDOI: Jauna, egin ahalak eginen ditut zure manuaren ontsa betetze-ko.

KONDEA: Konfientzia badut zu baitan... Uzten zaitugu beraz. Zuek biak, jin zaitezte enekin zalditarat! (*Urruntzen dira, aditzen dira zaldi kalupak eta gau azuntz zenbait*)

EZPELDOI: (*Harat eta hunat dabila apur bat... Zaldiak senditzen dira urruntzen... Gau arrabots batzu... Bere emazteari oibuz*) Dominika... Ho! Dominika!

DOMINIKA: (*Agertuz atetik*) Zer nahi duzu?

EZPELDOI: Ekazu hunarat ene soldado lantza...

BERTERRETX: Ez duzu lantzaren beharrik ni zaintzeko, ez naiz eskapatuko... Herioak berak ixtantekotz zainduko bainau.

DOMINIKA: Ori zure lantza... Ho, hauxe da kargua hartu duzuna! (*Apur bat ixilik*)



BERTERRETX: Menbroak hormatuak ditut... Hozten ari naiz... Eneak egin du...

DOMINIKA: Korda hori tinkiegi du... Largatzen bazinio pixka bat!

EZPELDOI: Emaztea, otoi, ez zaitela huntaz okupa... Hunen soldado naiz, eta ez hunen sendari.

BERTERRETX: Ekazue otoi edaterat!

DOMINIKA: Ekartzen segidan...

EZPELDOI: Ez holakorik, Dominika... Utz-azu hunen arta ene gain.
(*Apur bat ixilik*)

BERTERRETX: Apez bat nahi nuke.

DOMINIKA: Ho, bainan gizon hau hiltzen ari da!... Banoa apezketarat.

EZPELDOI: (*Fermuki*) Dominika, zoazi barnerat... Eta, ez zaitela handik mugi...

DOMINIKA: (*Erdi obedituz*) Oas, ez dakit ba nik!... Sekulan egia badio, horren heriotza kontzientzian izanen dugu...

BERTERRETX: Milesker halere zure borondate onarentzat.

EZPELDOI: Hunen kargua kontzientzian?... Bere faltak ditu oro... Nun duk Margarita?

DOMINIKA: Ho ba, nun da gure Margarita?... Zertako ez erran nun duzun?... Berdin orok badakite zuk duzula ihes arazi jauregitik!

BERTERRETX: Ez dut nik Margarita jauregitik jali, eta nun ditaken, ez dakit!

EZPELDOI: Nori sinets-araziko duk holakorik?... Berdin galdua izanki eta xorua behar dik hola gogor egiteko.

BERTERRETX: Baitezpada gezurra erran behar banu ere salbatzeko, ez nakike zer gezur munta...

EZPELDOI: Gertatzen direnak hire faltaz dituk... Hoinbertze aldiz guhau-rek abisatu haugu!... Zertako hola tematu haiz Margarita beharrez?

BERTERRETX: Alderdi zuzena dut sustengatu...

EZPELDOI: Zer uste huen? Kondea bentzutuko huela!... Indarrari umildu behar zaiok eta ez oldartu.

BERTERRETX: Ba, indarrari umildu nitzaio... Bainan zuk eta nik, ez dugu indar bera zerbitzatzen... Zu armen, eta ni, arimen zerbitzari.

EZPELDOI: Horra hire ele eder guziek zertaratu hauten!

BERTERRETX: Ez... Ixurtzen ari naizen odola, ez da debaldetan ixuria izanen... Odol horrek, hainitz jendeen arimetan sentimenduak arrosatuko eta sustatuko ditu. Horrek busti erroeta-

rik denboraz oraino, arbola goraiak jaliko baitira. (*Dominika etxerat sartzen da... Ezpeldoi barat eta hunarat dabila... Gau arrabots batzu entzuten dira... Berterretx batzutan mintzo da, arteka ixilik dago edo intzirika*) Ha, hozten ari naiz!... Edaterat, otoi edaterat!... Gurutze gaineko jauna, urrikal nakizu... Zu bezala orotaz abandonatua... Hau ilunbea!... Hoin gazterik joan behar!... Ene ama lurrekoa, ene aita zena, zuen semeak leial egon nahi izan du zuek hari erakatsiari... leial bururaino... Zeruko ama, zure semeaz orroitzuz, nitaz ere arta har-azu... Margarita, ene lagun beharra, zuri hitzema-naren ohoratzeko, naiz hiltzen... Ni orai libro naiz... Ene arimaz ez dira sekulan jabetu... Gorputzaz ba, bainan hura ere orai kentzen diotet... Margarita, zaude zu ere beti libro... (*Ahapetik*) Jesus... Jesus... (*Hiltzen da. Oraino apur bat bo'p'bola, denak ixilik dagoz...*) Entzuten dira zaldi arrabotsak... Zalditarik jautsirik agertzen dira biru urrundu gizonak)

KONDEA: Hor zirea, Ezpeldoi?... Ez dugu Margaritarik harrapatu Berterretxeko bordan!... Nago ez ote den zuen bordan. Harat ere itzuli bat eginen dugu... Kaskoan hartua dut erregina behar dutala ene festalieren erdirat agertarazi argia baino lehen. Arras gutitan uzten dut nik, bururatu gabe, kaskoan dudana... Ez dute Berterretx eta horren adixkidek nitaz irri eginen... Erakutsiko diotet arras oren guti aski ditudala horien ukaldieri ihardokitzeko. (*Berterretxi buruz*) Eta?... Zertan da zirtzil hau? Ari izan dea, hortik jaltzeko jukutria muntatzen?

EZPELDOI: Apur bat huntan ez da mugitzen.

KONDEA: Errak to!... (*Hurbiltzen zaio... burna inarosten dio*) Bainan zer da?... Hila, zirtzil hau?... Jes!... Ba alaina ba!... Hila dugu!... Jes!... Zer diozu, Ezpeldoi, zerbeit kolpe tzar eman?

EZPELDOI: Ez jauna, nik ez dut hunki ere!

KONDEA: Bainan, ezin koprenitua da... Hunek ez zuen hiltzeko arrazoi-nik... Ez diozua, zuk, egiazki, deus ukaldirik eman?

EZPELDOI: (*Samur*) Ez jauna... Ez nezazula ni akusa... Nik, heriotze hun-tan, ez dut deus ikustekorik!

KONDEA: Ez dakit ba... Zu zinen hunen zain... Zure gain zen hunen harat-hunata...

EZPELDOI: Dudarik gabe, aski haundiak hartuak zituelakotz, hunarat ain-tzin...



KONDEA: Otxoa eta Turko, gorputza libra-azue bere esteketarik... Laster, elizarako jendeak izanen dira hemendik. Holakorik ez dezatela ikus.

OTXOA: Nun behar dugu ezarri gorputza?

KONDEA: Zuk, Ezpeldoi, prestatuko daukuzuia ezkaratza mutur bat, gorputz horren pausatzeko?... Jinen gira lehen-bai-lehen horren bilarat.

EZPELDOI: Ba, gure ezkaratza hor da, zuen gomendio...

KONDEA: Ezar-azue ezkaratzean! (*Obeditzen dute eta ate barneko alderat gorputza sartzen*)

DOMINIKA: (*Agertuz*) Hoo, zer da?... Hila?...

OTXOA: Ba, hala da... Zuen ezkaratzean pausatzen dugu...

DOMINIKA: (*Erdi nigarrez*) Gaizoa!... Beraz, egiaz ari zen!... Hau zer izigarrikeria!

OTXOA: Aski diozu estalgi bat gainetik emaita, gu berritz jin artio, horren ikusteak ez zitzaizalada.

KONDEA: Dominika, eta zuek denak, zatotze ene ingururat. Badautzuet zerbait erraiteko. (*Hurbiltzen dira*) Heriotze hunen berria laster hedatuko baita, holakotan gertatzen den bezala, hainitz ele mota ibiliko dira hortaz... Ez gaiten zikinduak izan, lekukoek bat egin dezagun eta xehetasun berak eman ditza-gun, galdatzen dautzuet... Aski dugu erraitea zaldi ostiko batez hil izan dela... Bazaretea?

DENEK: Ba, ba, ontsa da...

KONDEA: Eta, berriari abiadura ona emaita, hi, Otxoa, habil segidan zeinu jotzalearen aurkitzerat, eta argi ezkilaren ondotik, galda-zok hil-zeinuak jo ditzan, usaia den bezala... Kondazok, gure gisan, zer gertatu den.

OTXOA: Ontsa da... Banoa segidan... (*Hala egiten du*)

KONDEA: Gero haugi gureganat, Ezpeldoiko bordarat... Han izanen nuk Turkorekin.

EZPELDOI: Laster jinen zaretea gorputz hunen kentzerat?

KONDEA: Ez zaitela kexa... Bego hori gure gain... Bon, hi, Turko, haugi enekin... Laster berritz hemen izanen gira. (*Urruntzen dira biak... Zaldi lasterrak entzuten dira urruntzen*)

EZPELDOI: Mutil horrek, bizirik baino gehiago ere hil-eta nardatu behar gaitu denak.

DOMINIKA: Oas, eta Margarita, nun ote dabila? Kondea ez ote zaio jazarriko?

EZPELDOI: Ez zaitela Margaritaz kexa!... Harek baino odol gaxto gehiago baitugu egiteko guhaurek! Entzun duzuia konde zital hori?... Baitezpada nik eta nik hila nuela Berterretx nahi zuen entzun... Berak harria aurtik eta haren ukaldia bertzeen bizkar!...

DOMINIKA: Arbola hunen ingurua dena odoleztatua da...

EZPELDOI: Ba, odol hori hobe dut gordetzea furtxa batekin. (*Badoa furtxaketarat*)

DOMINIKA: (*Ate ondoan gorputzari hurbil*) Apeza galdatzen zuen... Hiltzerat ari zenari, apeza bera errefusatu diogu...

EZPELDOI: Ez dut gaxtakeriaz egin... Ez nakien hortan zela... Jukutriaz ari zela, uste nuen... Denak kondearen faltak dira...

DOMINIKA: Hau hila hemen... Bizirik onartzen ez ginuena, hil-eta lehen aldikotz, guhaurek dugu Ezpeldoian sartu... Beldur naiz ez ote den hor gure Jainkoaren eskua.

EZPELDOI: Ez dugu guk hil.

DOMINIKA: Uste duzuia jende sinetsi nahiko dutela zaldiaren ostikoaz hil delako ixtorioa?... Beldur naiz, berria bertzela hedatuko dela... Xahu da gure omen ona...

EZPELDOI: Aski dugu erraitea, guk, fitsik ez dugula ikusi... Guri gorputza ekarri daukutela beiratzeko eta gainerateko fitsik ez dakigula...

DOMINIKA: Eta ama, abisatuko ote dute semea gorputz duela?... Eta nork ote?... (*Argi ezkilak joiten dute, eta beien ondotik, hil zeinuek*)

EZPELDOI: Hori, kondearen egitekoa da... Argi ezkila!... Sar gaiten eta atea hets dezagun... (*Apur batez, ezkilak entzuten dira, nehor ez dela ageri... Zango puntetan, ahal bezain ixilik, agertzen dira: Margarita eta Marisants... Apur bat ixilik egoiten dira*)

MARGARITA: (*Apaletik*) Gure etxean argia piztua dute... Ho, norenak ote dira hil ezkila latz horiek?... Zerbaitek erraiten daut malura izigarri baten pean garela! Ho, ez dakit iduripen xoro batez joa naizen, bainan odol beroaren usain hila senditzen dut... Ez ahal da hemen krimarik gertatu!... Zuk nolaz dakizu Berterretx hemen ditakela?

MARISANTS: Kondeak, semea, gauerdian ondoan, bere gizon armatuekin ereman dautalarik, tira-ahala jo dut Lakarrirat, anaiaren etxerat. Harek kontseilaturik, izan naiz Mauleko jauregian... Han ikasi dut segetuan, zu nun zinen gordea, ondo huntan... Semea ere hemen zitakela!



MARGARITA: Ba, adixkideak harrapatu ditut jauregiko zerbitzarietan...
 Hek lagundurik gauaz naiz eskapatu festa bete-betea...
MARISANTS: Zure etxean ote dakite zerbait?... Zer egin?
MARGARITA: Jada argia piztua! Zerbait gertatzen bide da! Joiten bazinio-
 te atea?
MARISANTS: Ba, hoberenik!... Zu ez zaitela agert... (*Atea jotzen du*)
EZPELDOI: (*Leibotik*) Nor da hor?
MARISANTS: Ni naiz!
EZPELDOI: Nor ni?
MARISANTS: Berterretxeko Marisants.
EZPELDOI: (*Idor*) Zertan zabilta hemen, tenore huntan?
MARISANTS: Mauleko jauregitik heldu naiz... Ene semearen ondotik
 nabil... Maulen, zueri galdatzeko haren berri, ihardetsi dau-
 tate.
EZPELDOI: Zuk zure semea galdatzen dautazu... Nik ene aldetik galde bat
 eginen dautzut: Ean nun du zuen hemengo alaba!
MARISANTS: Zuen alabaz, dakidalarik, ez duzue griñatzerik... Ez baita
 irriskuan.
EZPELDOI: Eta zure semeak, zer irrisku du, berak bere buruari eman-
 kanpo?
MARISANTS: Ene semea, gau huntan kondeak, etxetik hartu-eta eremana
 daut.
EZPELDOI: Horra zer gertatzen den goragokoekin auzitan sartzen dire-
 nerik!
MARISANTS: Indarraren alderdia ez da beti zuzenaren alderdia... Ene
 semearen ibilpidea ederrago zaut, kondearena baino.
EZPELDOI: Ez zaitela beraz pleini zure semearen maluraz. Berak xekatu
 duenaz geroz!
MARISANTS: Ene semearen maluraz?... Zer errango duzu?... Zuk badaki-
 zu hortaz zerbait!
EZPELDOI: Nik zer nahi duzu jakin dezadan, zuhauren erranez kanpo?
MARISANTS: Mauletik Ezpeldoirat igorri naute, gau huntako xehetasune-
 tarat.
EZPELDOI: Halere, Berterretxekoak ene atearen jotzerat jiten, eta Ezpel-
 doiko alaba Berterretxekotzat on.
MARISANTS: Ez nau hunarat ekarri zutan dezaketan konfientziak,
 bainan beharrak eta bihotzeko xangrinak.
EZPELDOI: Ez zira kopetarik gabe... Alaba ebatsi ondoan, haren etxeko-
 eri, gauak-gauari, okaxione miazterat etortzeko.

MARISANTS: Ha, Ezpeldoï latza... Ezagun da aitako amodioak ez duela
 behin ere goxatu zure bihotza... Barne gogorra egiazko
 aitaizuna, ez bakarrik familiarentzat, bainan ororentzat.
 Zure bihotza ez da idekitzen, diruari bertzerik, eta kon-
 dearen beldurrari... Uste nuen gizon bat bazela hemen, eta
 kabala bat dut aurkitu... Haur saltzaile, krima tapatzaile,
 konde milikari, otsoak ez dira zu baino higuinago... Urrun-
 tzen naiz, eta ez dauzkat berritz zangoak pausaturik zure
 ate-aintzin madarikatuan!
EZPELDOI: Ez dut bertzerik galdatzen. (*Irri mehar tzar batekin, leiboa besten
 du... Marisants Margaritari hurbiltzen zaio. Hil zeinuak aditzen
 dira*)
MARGARITA: Ho, hil zeinu horiek ez direla ixilduko! Erran zapar batek
 dio zeinu horren bozak «Hori enea, hori enea» diotela kon-
 datzen, hilaren etxekoeri... Ez ahal da guretzat kantu hori!
 Ho, Berterretx!... Ez, ez ahal da holakorik! Ikaretan nago...
 Toki huni, sekulan ez bezalako begitarte eta usain bat kau-
 sitzen diot, herioak hemengo landare eta gainerateko biziz
 dohatuak bere hatsaz okertu balitu bezala... Ha, ez da ni
 baino malurusagorik... Noiz bada nunbaitik jaliko da urri-
 karizko boza bat, bakea eta deskantsua kantatuko daut-
 nik?
MARISANTS: Margarita, zurea bezain urraturik dago ene bihotza... Ez
 zinukea, zure eskualdetik, nik erreusitu ez dudan entsegu
 bera egin nahi? Zerbaitek salatzen daut... Hor dela, hor, ate
 horren giblean, guk daldaretan miazteru dugun segetua-
 ren gakoa... Otoi, ate horri hurbil zaita, ni hurbiltzen
 nitzaien bezala...
MARGARITA: Aitaizunaren beldur naiz!
MARISANTS: Eta ama ez duzuia hor?
MARGARITA: Ama ba, ene ama da, aitaizuna ez delarik gure aldean. Bainan
 aitaizuna agertu orduko, izimendu batek bihotza tapatzen
 dio eta, enetaz harri bilakatzen da... Ni eskutik ezkondu
 zen, bainan zorigaitzez, eskutik esku-perat erori nintzen.
MARISANTS: Hola ez gaitezke ba hemen egon... Behar dugu norapait
 mugitu!
MARGARITA: Arrazoina duzu... Eginen dudan urratsa ezin eta gehiago
 penagarri zaut, bainan etsidurak bortxatzen baitu adimen-



dua laket ez zaizkonetarat, halere deliberatzen naiz ate horri hurbiltzerat...

MARISANTS: Baditake amak emanen dautzun errepusta... Iduritu zaut ni utzi eta, aita ganberatik jali dela... Jainkoak lagun zaitzala! (*Margarita ateari hurbiltzen da duda-mudaka eta atea jotzen du*)

DOMINIKA: (*Leibotik*) Nor da hor?

MARGARITA: (*Ahapetik*) Ni naiz, ama.

DOMINIKA: Zu?... Zu, haurra... Ho, ikaratzen nauzu... Nundik agertzen zira?

MARGARITA: Nahi dautazuia otoi atea ideki!... Barnean mintzatuko gira!

DOMINIKA: Ho, haurra, ez... Hobe duzu ez sartzea...

MARGARITA: (*Nigarrez*) Ama, zuk?... Zuk ere etxea, ene etxea hesten dautazuia?

DOMINIKA: Haurra, ez naiz gaxakeriaz ari... Ez dezakezu konpreni... Zaude... Heldu naiz nihaur aterat. (*Hala egiten du*)

MARGARITA: Ama, ditaken malurusenik naiz. Jauregitik ihes egin dut, bainan kondeak, ustez eta harek jalia ninduen, Berterretx preso altxatu du... Eta orai, Berterretxen ondotik nabila... Segur naiz, zuek badakizuela zerbait hartaz! Otoi, egia erradazu: Nun da Berterretx?

DOMINIKA: (*Nigarrez*) Ho, haurra... Ene haur maitea!

MARGARITA: Zer zaio?... Zerbait malura gertatu?... Zer da?... Hila bederen?...

EZPELDOI: (*Leibotik*) Aski sintsakeri!... Dominika sar zaite hortik. (*Margaritari*) Erran no, zer habila?... Hihaur nahasia haizela eta bertzeak nahasi beharrez? Zertarat heldu haiz hunarat?

MARGARITA: Ez naiz zuregatik heldu, eta ez ere zuri buruz. Bainan, amari buruz!

EZPELDOI: Ama ez dun hire beharretan. Hor nain ni... Zer haiz?... Ohantzerik gabe eta nunbait kokatu nahia?

MARGARITA: Ez naiz zure ohantzearen gutizian!... Eta, hala banintz, dretxo anal nuke, ni salduz, zuretu duzun ohantzean kokatzeko!

EZPELDOI: Aski barne ederretarat saldu haitugu... Aski dun harat itzultzea... Han dun hire egoitza.

MARGARITA: Ez da ene bizia zure ontasun... Ene biziaren jabe, ni naiz.

EZPELDOI: Hi hire biziaren jabe eta ni Ezpeldoiaren... Plazer badun, Ezpeldoiko lurak lehenbailehen hustuko ditun.

MARGARITA: Ez naiz hunarat egoiteko jina, bainan dakizunarengatik.

EZPELDOI: Zer hau?... Oraino ere Berterretxek tentatzen? Haren gorpuzak itzala egiten zuelarik ez hau gerizatu... Eta, zer uste dun?... Orai, itzala galdu ondoan ahalak azkartu zaizkola?

MARGARITA: (*Arrunt asaldatu*) Zer da? Berterretx hila?... Mintza zaite.

EZPELDOI: Hil zeinuak ari ditun... Kasu eman ontsa zer dioten. (*Leiboa besten dio... Anartean, Dominika sartu da*)

MARGARITA: (*Nigarrez hipaka, joaiten da Marisantsenganat*) Ez dut gehiago esperantzarik... Berterretxen begiak betikotz hetsiak dira... Hori dariote ezkilaren kantu lazgarriek... Urrunt gaiten leku krimatsu pozoindatu huntarik!... Gure biziari eman dezogun hatsa, hemengo aire ustelduaz hobeagorik.

MARISANTS: Ba, urrunt gaiten... Berdin hemengoak egintxe ditugu. (*Abiatzen dira*) Xxt! Xxt! Xo... Zaldi arrabotsak. Gorde gaiten. (*Gordetzen dira. Norbait jausten da zalditik. Kondeak agertuz atea joiten du Ezpeldoin*)

EZPELDOI: (*Leibotik*) Zu zirea, jauna?...

KONDEA: Ba... Ez dugu fitsik atzeman...

EZPELDOI: Bakarrik zirea?

KONDEA: Ba... Bertzeak, ondotik jinen dira orga batekin, hemengo garraioaren egiteko... Hunarat agertu dea nehor?...

EZPELDOI: Ba... Doi doia du hemen zirela Margarita eta Berterretx anderea.

KONDEA: (*Harritua*) Hek hemen? Nundik eta nora?...

EZPELDOI: Berterretxen ondotik zabiltzan...

KONDEA: Eta?... Erakutsi diozutea Berterretx?

EZPELDOI: Ez... Haren berririk ez nakiela eta, atea ideki gabe, igorri ditut hemendik... Bainan, barkatu!... Kanpoan uzten zaitut sararazi gabe... Heldu naiz idekitzerat... (*Atea idekitzean, agertzen dira hil gorpuzaren bi zangoak, estalki batez erdi tapatuak. Hil zeinuke usuago joiten dute eta ixiltzen dira*) Konprenitzen duzun bezala, hilaren gorputza hemen eta, ez nakoten atetik ideki.

MARGARITA ETA MARISANTS: (*Marrumaz agertzen dira*) O, ene semea!... O Berterretx (*dariotela*) (*Atea idekia dago, Ezpeldoi barnean gordetzen da. Kondea, ixilik, zutik dago kanpoan, etxe-murruaren kontra. Margarita emaiten da, belauniko, nigarrez etxe barnean populuari buruz, burua eroria Berterretxen zangoen gainerat. Marisants xutik egon ondoan apur bat kanpoko aldetik, nigarrez hipaka errabia izigarri batekin mintzo zaio kondeari*)



MARISANTS: Konde madarikatua... Horra hire obra... Hurbil-hadi!... Sati-fa-hadi!... Hain maite ditukan nigarrak eta odolak badituk hemen! Hurbil-hadi, ba!... Ihaus-hadi odolean eta nigarrean, urdea ixtilean bezala... Zikin putzua, hi!... Hi bezala-koek, ttu litekek merezi bisaiaeren gainerat...

KONDEA: Ixilik, gero!... Edo badut, hemen, zu ixil araztekoa. (*Bere espata-ri lotzen da*)

MARISANTS: (*Gero eta bortitzaga*) Jali-zak hire espata!... Ixur-zak ene odola ere! Berdin, gizon armatuen kontra baino usaia gehiago duk gerlaren egiteko armarik gabe diren emazte gaixoen kontra! (*Kondea, duda-muda pixka bat ibilirik, urruntzen zaio eta jaltzen*) Ha, urruntzen hiza!... Zer hiza? Ene beldur?... Habil beraz... Habil, hire kidekoeri, egungo hire obra aipagarrien kondatzerat! Ase-aitzik hire espantuez... Hire bizi-ko liburuan, egitate famatsu bat gehiago baduk orai ezartzeko... Bizirik usteldua, hi!... (*Apur bat ixilik dago, bilari so... Pazko brandak entzuten dira... Xutik, erdi semeari eta erdi populuari buruz mintzo da, fermuki eta kartsuki*)

Berterretx, ene seme Berterretx... Bihotza hautsia bainan adimendua fermu, hire sakrifizioa onartzen diat eta goستن. Ez duk ukatu hire odola, ez eta hire gogo zuzena. Hemengo jendea sobera zangopear zaukatek sobera manatari, heien milikari, aitaizun eta baliatzaleek.

Ontsia zautak, hire izpiritu garbiaz garaitu baitituk inguruko itsuskeriak eta orori eman baiteraukuk gida eta esperantza.

Entzun-aitzik elizako zeinuak... Duela apur bat heriotza zioteian, eta orai berritz, Pazko branda alegerak bizia eta piztea ditek kantatzen.

Ezkila horiek, hire zortiaz dituk mintzo... Hila hintzela salatu ondolan, orai berritz, behin ere baino biziago eta ahaltsuago haitzela ditek kondatzen.

Nehork ez duelarik aipatuko Bortueder, higuintzeko bertzerik, hire oroimenak, beti eta beti, sustatuko eta xutiaraziko ditek bertze Berterretx gazte batzu.

Berterretx, ene semea, kontsola eta loria hadi... Ez, ez duk hire bizia bururatua... Orai duk hasten! (*Brandak gero eta bortitzekiago ari direla*)